

LURZORUA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKO A GARBITZEKO LEGE-PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

Lurzorua, gizateriaren bizi-iturririk estimagarrienetako bat, funtsezko elementua da, eta pertsonen jarduera gehien oinarria. Baliabide horren funtzio-aniztasunaren eta eskuragarritasun mugatuaren ondorio garrantzitsuetako bat -eta lurzorua andeatuta egotearen zergati nagusietako bat- da lurzoru-erabileren arteko lehia gero eta handiagoa dela.

Zenbait urtez modu desegokian erabili eta lehen alarma-zantzuak agertu ondoren, beharrezkoa izan zen zenbait mekanismo abian jartzea, berriztagarria ez den bizi-iturri urri hori arriskuan jarri gabe modu jasagarrian erabili ahal izateko. Izan ere, gero eta kaltetuago dago, gizakion jarduerengatik; jarduera horiek aldatu egiten dituzte lurzoruaren ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoak, eta batzuetan eraldaketa larriak eragitera iristen dira.

Kalteak saihestu eta konpondu ahal izateko irtenbideak bilatzeko, eta arazoa hurrengo belaunaldiei uztea eragozteko, Eusko Legebiltzarrak lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea onartu zuen.

Lurzoruaren kalitatearen arloan partikularrek eta herri-administrazioek egin beharreko ekintzei legezko estaldura ematea zen legearen xedea, lurzorua babesteko Euskal Autonomia Erkidegoan diseinatutako politikaren oinarri diren hiru helburuak lortzeko: hau da, lurzoruaren eraldaketa berriak agertzea saihestu, kasurik premia-koenak konpondu, eta, azkenik, kutsatutako lurzoru gisa oinordetzan hartutako pasiboa epe ertain eta luzera konpontzeko plangintza egin.

Lurzoruaren kalitatea babesten aurrerapen handiak lortu arren -bereziki, bizi-iturri hori babestearen aldagaia partikularren eta oro har herri-administrazioen ekintzetan sartzean-, 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea praktikan aplikatzean, agerian geratu dira legea aldatzea beharrezkoa dela erakusten duten arazoak. Aldaketaren xedea hau da: arauaren helburua, hots, lurzorua babestea eta lurzoruaren kutsadura garbitzea, bereziki kasurik garrantzitsuenetan betetzea, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioek egin dezaketen kaltearen arabera.

Legea parametro bikoitz baten arabera aldatzea da xedea: batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztea, administrazio-izapideak sinpletzea eta beharrezkoa ez denean tutoretzarik ez izatearen printzipioa betetzea; eta, bestetik, ingurumen-estandarrek hertsiki mantentzea, aldaketarekin estandar horiek inola ere urritu gabe.

Bestalde, hondakinen eta kutsatutako lurzoruaren 2011ko uztailearen 28ko 22/2011 Legea onartzean ere, gomendagarri bihurtu da 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasotako zenbait gai moldatzea: hala nola kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzea behartuta dauden pertsonak zehaztea.



Gai horiek sartzeak, gainera, legearen egituran aldaketak egitea komeni dela erakutsi du, arautzen dituen alderdietan sistematikoagoa izatea lortzeko: lurzoruaren kalitatearen arloko bitartekoak eta prozedurak, ezartzen dituen betebeharrak, lurzoruen politikako bitartekoak eta zigortzeko araubidea.

Bestalde, aldaketa horrekin, araudiaren funtsezko alderdi erabakigarriak ezarriko dituen lege-mailako arau-testu bat onartzea aukeratu da, eta arauaren garapenatarako uztea teknikoagoak edo prozedurazkoak diren alderdiak.

Halaber, beharrezkotzat jo da legean araututako prozedurak kudeatzeagatik tasak ezartzea. Eta hori horrela egin da, uste osoa izanik beharrezkoa dela ingurumen-organoaren esku-hartze administratiboak eskatzen dituztenei esku-hartze horrek dituen kostuak ordainaraztea, betiere begien bistatik galdu gabe herri-administrazioen ekintzak publikoak izan behar direla. Administrazioaren beste esparru batzuetan gertatzen denarekin egin den alderaketak berresten du uste hori.

Aldaketa horiengatik guztiengatik izan da gomendagarria 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatu beharrean lege-testu berri bat idaztea, aurreko legea osorik ordeztu dezan.

Aurretik azaldutakoari jarraiki, lege honek aurrekoaren xedea mantentzen du, hau da, autonomia-erkidegoko lurzoria babestea eta gizakien ekintzen ondorio den kutsadura saihestea; orobat, lurralde-esparru horretan dagoeneko kutsatuta eta eraldatuta dauden lurzoruei ezartzekoa den araubidea finkatzen du, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzeko.

Bi dira araudi berrian sartzen diren berrikuntza nagusiak. Alde batetik, lurzoria kutsa dezaketen jardueren sailkapen bat ezartzen da. Kutsatzeko ahalmenaren arabera egin da sailkapena, eta, horren bitartez, betebeharrak zehazten dira, arauan xedatutakoaren ondorioetarako: betebeharrak desberdinak eta ahalmen horri hobeto egokituak. Beste alde batetik, lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloko esku-hartze administratiboa bizkortzeko, bi prozedura ezarri dira lurzoruaren kalitatearen arloan ere: lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura, zeinak proposatutako erabilera lurzorurako egokia den balioztatzeko xedea baitu; eta lurzoruaren erabileraren gaitasuna adierazteko prozedura, zeina prozedura soilagoa baita eta industria-erabilerarako soilik den lurzoruaren gaitasuna balioztatzeko xedea baitu.

Legearen I. kapituluaren I. artikuluan, lurzoria kutsa dezaketen jardueren aipatutako sailkapena finkatzen da, eta, lurzoria kutsa dezaketen jardueratzat jotzeko, lurzoria ukitzen egoteko baldintza gehitzen da jarduera guztietarako.

Gainera, hondakinen gaian indarrean dagoen araudian eta lurzoruaren kutsadura saihesteko araudian jasotako xedapenak batera lantzeko, garrantzi berezia hartzen dute lege berriko xedapenek. Berariaz ezartzen da hau: hondakinak uzteko jarduera bat egin den lekuetan, zigilatzea nahitaezkoa denean edo zigilatzea aurreikusten denean, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak zuzen zigilatu dela onartzeko eta itxiera osteko aldia hastea erabaki dela adierazteko emandako ebazpenak lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ondorioak izango ditu, eta, xede horretarako, erabilera bateragarriaren inguruko adierazpena gehituko da. Gainera, arduraz jokatzearen printzipioarekin bat, lurzoria etxebizitzatarako erabiltzeko mugak ezartzen ditu legearen testuak, hondakinak uzteko jarduerak jasan dituzten lekuetarako.

Gainerakoan, autonomia-erkidegoko lurzoruaren kalitatearen inguruan, herri-administrazioen jokabidearen eredu diren printzipioei eusten die legeak, eta arlo horretako eskumenen

diseinuari ere bai, kontuan hartuz udalerririk bihurtu behar direla lehen mailako indar eragile lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzeko politika ezartzeko.

Legearen II. kapituluan, sistematikoki definitzen dira lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren bitartekoak, eta hauexek dira: lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozedurak, lurzoruaren egoeraren txostenak, lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketak, lurzoruaren kalitatearen ikerketa xeheak eta lurzoruaren azken egoeraren ikerketak. Ikerketa xeheetan, kasuen arabera, arriskuen analisiak, aukeren azterketak, lurzoruaren oneratzeko planak eta gaika hondeatzeko planak sartuko dira. Alde horretatik, ondoren araua garatzea aurreikusten bada ere, bitarteko bakoitzak izan behar dituen gutxieneko edukia eta zehaztasun-maila finkatu dira.

Legearen III. kapituluan, lurzoruaren edukitzaile eta jabe diren pertsona fisiko edo juridikoen oinarritzko eginkizuntzat jotzen da lurzoruaren babestea, eta legean jasotako betebeharren bidez beteko da eginkizun hori. Lege honen ondorio diren diru-betebeharren erantzule solidarioak edo subsidiarioak izango dira ingurumen-erantzukizunaren araudian jasotzen diren subjektuak, araudi horrek ezartzen duen bezala.

Mantendu egiten dira betebeharrak hauek: lege honetako II. eranskinean zerrendatuta dauden eta lurzoruaren kutsadura ezazteko instalazio edo jarduerak dauden lurzoruaren inguruko txostenak bidaltzea aldi-aldi autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoari; lurzoruaren substantzia kutsatzaileak egotea saihesteko eta halako substantzien ondorioak txikiagotzeko jarritako prebentzio- eta babes-neurriak hartzea; eta lurzoruaren edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridikoen hura oneratzeko eta kontrola eta segimendua egiteko neurriak ezartzea, lurzoruaren kalitatearen bilakaeraren gaineko eta lurzoruaren kutsadurak edo eraldaketak inguruneetan izandako eraginaren gaineko datuak lortzeko.

Lurzoruaren egoeraren txostenen inguruan, hau adierazi behar da: industriako isurketen gaineko 2010eko azaroaren 24ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EE Direktiban ezarritakoaren arabera (kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuak), araudi horren mende dauden jardueren eskatzen zaizkien txosten horien maiztasunak 5 urtekoa izan behar du. Helburua direktiba horretako eskakizunak betetzea da, bai lurzoruak eta bai lur azpiko urak kontrolatzeko.

Aurreko legean bitartekoak jarri ziren, kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak dauden edo egon diren lurzoruak hartzen dituztenek egoera horren berri izateko. Hala ere, beharrezkoa da bitarteko horiek indartzea; horretarako, lurzoruaren erosi-titulak edo lurzoruaren gaineko eskubideak eskualdatzeko beste edozein egintzainskribatzeari uko egitea ezartzen da, eskuratzailerari jakinarazpena eman zaiola behar bezala egiaztatuta ezean.

IV. kapituluan, lurzoruaren kalitatearen adierazpenen eta erabiltzeko gaitasunaren adierazpenen kasuak arautzen dira, eta finkatu egiten da zein kasutan ez den izango beharrezkoa legean araututako prozedurak hastea. Hori ez da oztopo izango administrazioak kontrola eramateko; horri esker jakingo du autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak ekintzak nola egin diren, eta egiaztatuta egingo du ekintza horiek lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloko helburuei egokitzen zaizkien.

Legearen V. kapituluaren xedea lurzoruaren kalitatearen arloko administrazio-prozeduren inguruko gai orokorrak jasotzea da; horren inguruko erregelamendua garatu egingo dela aurreikusten da.

VI. kapituluan, lurzoruaren kalitatearen adierazpenen ondorioak finkatzen dira, eta "kutsadura edo eraldaketa historikoa" eta "kutsadura edo eraldaketa berria" izenekoak



bereizten jarraitzen da. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Legea aipatzen da bi egoeren arteko mugatzat (Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra); izan ere, gure autonomia-erkidegoan, lege horrek ezarri zizkien modu argian betebeharrak lehenbiziko aldiz lurzorua jabe diren pertsona fisiko edo juridikoei, eta arlo horretako araubide zigortzailea ere ezarri zuen.

Halaber, kapitulu horretan zehazten dira lurzorua oneratzeko neurriak hartu behar dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta erantzukizun hori, lehen-lehenik, lurzorua kutsatu dutenei egotzen zaie. Zenbait direnean, era solidarioan erantzungo diote betebeharrak horri. Horien ordean, betebeharrak lurzorua jabe eta edukitzaileena izango da, hurrenkera horretan.

Lurzorua oneratzeko neurriak ezartzean, ez da baztertzeko hondakinen gaian indarrean dagoen araudi sektoriala. Leku batean detektatu diren hondakinak zuzen kendu eta kudeatzeko eskakizuna ekar dezake araudi horrek; bereziki, hondakin arriskutsuen inguruan.

VII. kapituluan, lurzoruen politikan herri-administrazioen ardura diren bitartekoak jasotzen dira, arlo horretan egiten dituzten ekintzak gidatzen dituzten printzipioak eraginkor bihurtzeko helburuarekin.

Aipatutako bitartekoak hauek dira: lurzorua kutsa dezaketen jardura edo instalazioak dauden lurzoruen inbentarioa; jarduteko jarraibideak eta lehentasunak finkatuko dituen lurzoruen plana; Lurzorua Kalitatearen Administrazio Erregistroa, zeinak ingurumen-gaia informazioa lortzeko eskubideaz baliatzeko bidea emango duen; lurzorua ikertu eta oneratzeko baimendutako entitateak; legean xedatuta eginbeharrak betetzera bultzatzeko diru-laguntzak; eta finantza publikorako mekanismoak. Bitarteko horiei dagokienez, komenigarria da zehaztea estatuko oinarritzko legerian ezarrita dagoen kutsatutako lurzoruen inbentarioko edukia Lurzorua Kalitatearen Administrazio Erregistroan dagoela jasota.

VIII. kapituluan, zigor-araubidea ezartzen da, eta arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak bereizten dira, ingurumenean edo pertsonen osasunean sortzen diren arriskuen edo kalteen arabera. Nolanahi ere, arriskuen analisisan arrisku onartezin bat dagoela ondorioztatzen denean pertsonentzako, beren ondasunentzako edo ingurumenarentzako arrisku larriak sortzen direla zehazten da. Halaber, arriskua neurtzeko arriskuen analisisa egitea beharrezkoa bada, arriskua dagoela ulertzen da.

Arau-hauste horien ondorioak diru-zigorak eta beste mota bateko zigorrak dira, eta lurzorua kutsatu duen jardura edo instalazioa behin betiko uztea ekar dezakete kasurik larrienetan.

Kapitulu horrek, ezarritako zigorrak bere hartan direla, egindako arau-hausteen ondorioz lurzoruetan eragindako kalteak konpontzera behartzen du, erantzukizuna dutenen kontura.

Lehenengo xedapen iragankorrek lurzorua kalitatearen adierazpenen balioa ematen die 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean jarri aurretik lurzorua kalitatearen inguruan egindako ikerketak direla-eta autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak emandako ebazpenei eta ziurtagiriei.

Bestalde, bigarren xedapen iragankorrean xedatzen denez, lege hau indarrean sartu aurretik lurzorua kalitatearen adierazpenaren prozedura gisa hasitako kasuak lege honetan ezarritakoaren arabera bideratuko dira, baldin eta lege honen arabera lurzorua erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura gisa bideratu beharrekoak badira edo prozedura horietatik salbuetsi badaitezke, betiere prozedura hasi duen pertsonak hori eskatzen duenean, eta hasitako prozeduran behin betiko ebazpena eman ez bada.



Hirugarren xedapen iragankorrean, lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozeduretan hondeaketa-planak eta egoera-txostenak landu ditzaketen entitateak zehazten dira, eta hondeaketa-planak gainbegiratzeko gaitutako entitateak ere bai, entitateak baimentzeko araubidea eguneratzen den bitartean.

Laugarren xedapen iragankorrean adierazten denez, lurzoruen inbentarioa 2008ko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartutakoa da.

Xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu egiten du lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea eta lege berrian ezarritakoaren aurka doan xedapen oro.

Halaber, azken xedapenetatik lehenengoan, lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloko zerbitzuak emategatiko tasak ezartzen dira. Horrela, finkatutako tasen arabera kobratuko dira bai lurzoruaren kalitatearen arloko prozeduretan eta lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko entitateak baimentzeko prozeduretan autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak egiten dituen ekintzak eta bai Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroari egindako kontsultak.

Amaitzeko, I, II eta III. eranskinetan, honako hauek ezartzen dira, hurrenez hurren: lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen zerrenda, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen sailkapena eta Ebaluazioko Balio Adierazleak. Nolanahi ere, aipatutako eranskinak aldatzeko ahalmena du Jaurlaritzak, bigarren xedapen gehigarriak emanda. Lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen identifikazioa ez da egiten indarrean dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera (2009ko EJSNa), baizik eta 2003an maila txikiagoko eguneratze bat egin zitzaien 1993ko sailkapenaren arabera (1993ko EJSNa, 1. berrikuspena); izan ere, hori erabiltzen da 2005eko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, zeinak lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda ezartzen baitu eta lurzoruak kutsatuta daudela adierazteko irizpideak eta estandarrak finkatzen baititu.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Legearen xedea.

Lege honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babestea da, eta jatorri antropikoa duten ekintzen ondorioz lurzoruaren ezaugarri kimikoak eraldatzea saihestea.

Horretarako, lurralde-eremu horretan dauden kutsatutako eta eraldatutako lurzoruei aplikatzekoa den araubide juridikoa ezartzen du, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzeko, eta finkatzen ditu bai berariazko betebeharrak lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioentzat eta bai baimentzeko araubidea ere lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko ekintzak egiten dituzten entitateentzat.

2. artikulua.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioak.

1.- Substantzia arriskutsuak erabiltzeagatik edota hondakinak sortzeagatik lurzorua kutsatzeko aukera handiena dutenak dira lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioak. Jarduera eta instalazio horiek lege honen I. eranskinean daude zehaztuta; eta, lege honen

ondorioetarako potentzialki kutsatzaileak izateko, beharrezko baldintza da lurzorua ukitzen egotea.

2.- Kutsatzeko ahalmenaren arabera, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen hiru kategoria finkatzen dira II. eranskinean. Horien sailkapenaren arabera, eta hartzen duten lurzorua zertarako erabiltzen duten kontuan hartuz, legeko betebeharrak desberdinak izango dituzte.

3. artikulua. Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

1.- Lurzorua: lurrazalaren zati solidoa da, harri amatik azalerrainokoa, zeinak barne hartzen baititu fase likidoak eta gaseosoak eta bertan bizi diren organismoak eta zeina gai baita eginkizun naturalak betetzeko nahiz erabilia izateko. Nolanahi ere, ez da lurzorutzat hartuko lurrazaleko ur-geruza batek etengabe estaltzen duena.

2.- Lurzoru kutsatua: gizakiaren ekintzen eraginez ezaugarri kimikoetan eraldaketaren bat duen lurzoru oro da, baldin eta aldaketa hori, ingurumenerako edo pertsonen osasunerako ezin onartuzko arriskua duelako, bere funtzioekin bateraezina bada bai egungo erabilerarako bai erabilera aldatuz gero hurrengo baterako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organokoak horrela adierazten badu, lege honetan lurzoruaren kalitatea zehazteko araututako prozedurarekin bat etorritik.

3.- Lurzoru eraldatua: eraldatutakotzat joko da edozein lurzoru, detektatutako kutsatzaileen kontzentrazioek ezarritako dauden erreferentziako balioak gainditzen dituztelako arriskuen analisia egitea beharrezkoa denean, eta analisi horrek lurzorua ez dagoela kutsatuta egiaztatzen duenean. Kutsatu gabe dagoen lurzorua ez da eraldatutatzat joko, lege honen ondorioetarako, baldin eta antzematen diren TPH edo petrolioaren guztizko hidrokarburoen kontzentrazioak oinarritzko araudian finkatutako erreferentziako balioa baino 50 mg/kg handiagoak badira eta 500 mg/kg baino txikiagoak badira.

4.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharrak: horrelakotzat joko dira hondakinak biltzeko eremuak, baldin eta jarduna utzia badute hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituen 1994ko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indarrean sartu aurretik eta ondorioz hondakindegia-izaerarik ez badute. Kontzeptu horretan sartzen dira "hondakindegia" izen orokorra duten lekuak, baldin eta lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauden edo egon diren lekuen inbentarioan jasota badaude eta aipatutako dekretua indarrean jarri baino lehen utzi bazioten jardunari.

5.- Lurzorua ukitzen duten jarduera eta instalazioak: dauden lekuaren eta lurzoruaren artean tarteko solairurik ez duten jarduera edo instalazioak.

6.- Ebaluazioko balio adierazleak: lurzoruaren kalitatearen estandarren sistema eratzen duten kimika-substantzien kontzentrazioei dagozkien balioak. Balio horiek lege honen III. eranskinean zehazten direnak dira; eta, eranskinean jasota ez dauden beste kimika-substantzia batzuen kasuan, arautzen den metodoaren arabera lortutakoak. Balio horiek honela daude definituta:

a) A Ebaluazioko Balio Adierazlea (A-EBA): substantzia jakin batek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruetan era naturalean aurkitzen denean duen kontzentrazio-tartearen mailarik gorenarekin bat datorren estandarra. Jatorri antropikoa duten substantzientzat, analisi-metodo normalizatuak aplikatzean detektatzen den mugako balioaren parekoa izango



da "A-EBA" A motako Ebaluazioko Balio Adierazlea. Salbuespen gisa, lurzoru batean dauden substantzia-kontzentrazioak naturalak direla ziurtatzen bada, onartu egin ahal izango da, espediente jakin bakoitzean, toki horretan "A-EBA" A motako Ebaluazioko Balio Adierazle desberdin bat finkatzea.

b) B Ebaluazioko Balio Adierazlea (B-EBA): substantzia batek lurzoruan duen kontzentrazioa adierazten du estandar horrek. Estandar horretatik gora, lurzoria eraldatuta dago, eta kutsatuta egoteko aukera ere badago, baina, hori egiaztatzeko, arriskuen analisi bat egin behar da. Lurzoruaren erabilera desberdinen arabera definitzen da B-EBA balioa.

Orobat, lur azpiko uren arloan erreferentziakoak diren balioak ezarri eta aldatu egin ahal izango ditu administrazio hidrauliko eskudunak, lur azpiko urak kutsadura eta narriaduratik babestearen inguruko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/118/EE Direktiban ezarritakoaren arabera.

7.-Arriskua: lurzoruan dagoen substantzia kutsatzaile bat hartzailearen batekin kontaktuan jartzean pertsonen osasunerako edo ingurumenerako ondorio kaltegarriak izateko probabilitatea.

Pertsonen osasuna babesteko, arrisku onargarriko egoera dela onartzen da, substantzia kantzerigenoen kasuan, minbizia agertzeko ohiko maiztasuna ehun mila kasutik bat baino gutxiagokoa izatea substantzia horren eraginpean dagoen biztanlerian. Kantzerigenoak ez diren ondorioetarako, onargarritzat joko da arriskua, identifikatutako substantzia kutsatzaileen kasuan, epe luzeko esposizio-dosien eta gehieneko dosi onargarriaren arteko zatidura unitatea baino txikiagoa denean.

Ekosistemak babesteko, arrisku onargarriko egoeratzat hartzen da egoera, identifikatutako kutsatzaileetarako, kontzentrazio gisa adierazitako esposizio-mailaren eta atalase ekotoxikologikoaren arteko zatidura unitatea baino txikiagoa denean; atalase hori ekosistemetan ondorioz espero ez den gehieneko kontzentrazioak definitzen du.

Kasu guztietan, aintzat hartuko dira bai substantziak banaka agertzearen ondorio diren arriskuak eta bai substantzia batzuk agertzean metaketak dakartzan ondorioak.

8.- Prebentzio-neurriak: lurzoria kutsatzen duen ekintzarik ager ez dadin hartutako neurri guztiak.

9.- Babes-neurriak: ekintza kutsatzaileetatik lurzoruan sortutako ondorioak saihestu edo gutxitzen saiatzen diren neurri guztiak.

10.- Lurzoria oneratzeko neurriak: lurzoruan substantzia kutsatzaileen kontzentrazioak gutxitzeko helburuarekin hartutako neurri guztiak eta substantzia horien eraginpean egotea edo substantziak sakabanatzea mugatzeko helburuarekin hartutakoak.

11.- Kontrol- eta segimendu-neurriak: kutsadurak kalte egindako lurzoruaren edo inguruneen kalitateak nahiz lurzoruaren eraldaketak denboran zehar izandako bilakaera balioztatu ahal izateko informazioa lortzeko helburua duten neurri guztiak.

4. artikulua.- Printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren inguruan, herri-administrazioek printzipio hauen arabera jokatu dute:



- a) Lurzoruaren funtzio naturalei eustea.
- b) Bere funtzio gehienak mantentzea.
- c) Teknologia eskuragarririk onenak erabiliz lurzorua oneratzea, izango duen erabileraren arabera.
- d) Leku berean lurzorua berriz erabiltzea dakarten konponbideei lehentasuna ematea.
- e) Lurzorua oneratzeko ekintza egoki baten kostuak bere gain hartzea ahalbidetuko duten erabilerak esleitzea lurzoruari.
- f) Kutsatzailea izan daitekeen jarduera bat dagoen edo egon den lurzoruari erabilera bat esleitzerakoan, hirigintza-kudeaketaren esparruan dagoen lurzoru guztiarentzat ingurumenaren aldetik konponbidea eskatzea.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen kalitatea ezagutzeari eta kontrolatzeari lehentasuna ematea.
- h) Kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela eta kaltea eragiten duenak erantzun egin behar duela dioen printzipioa aplikatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean dago jasota printzipio hori, eta lege honen VI. kapituluaren arautzen da nola aplikatzen den.

5. artikulua.- Hondakinak uzteko jarduerak egiten diren lekuak.

- 1.- Zigilatzea nahitaezkoa duten edo zigilatzea aurreikusten den hondakindegien kasuan, zuzen zigilatu dela onartzeko eta itxiera osteko aldia hasten dela xedatzeko ingurumen-organok ematen duen ebazpenak lurzoruaren kalitatearen ebazpenaren ondorioak izango ditu, eta, horretarako, bateragarria den erabileraren inguruko adierazpena jasoko du.
- 2.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharrek, lege honen ondorioetarako, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dauden edo egon diren lurzoruei ezartzen zaien araubide orokorra bete behar dute.
- 3.- Ebazpen batean inola ere ez da adieraziko leku bat erabil daitekeela etxebizitzatarako edo lege honen arabera hiri-erabileraren parekoak diren beste erabilera batzuetarako, kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zahar bat edo hondakin-degi bat dagoenean eta hondakin arriskutsuak dauzkanean edo, hiri-hondakinek bezala, gasak edo geoteknia-arazoak sor ditzaketen hondakinak dauzkanean.

II. KAPITULUA

LURZORUAREN KALITATEA EZAGUTU ETA KONTROLATZEKO BITARTEKOAK

6. artikulua.- Lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko bitartekoak.

Lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko bitartekoak hauek dira: lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozedurak, lurzoruaren egoeraren txostenak, lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketak, lurzoruaren kalitatearen ikerketa xeheak - arriskuen analisiak, aukeren azterketak, lurzorua oneratzeko planak eta gaika hondeatzeko planak barne, hala dagokionean- eta lurzoruaren azken egoeraren ikerketak.

7. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozedurak.

1.- Lurzoruaren kalitatearen arloan adierazpenak egiteko bi prozedura finkatzen dira: lurzorua kalitatearen adierazpenaren prozedura eta lurzorua erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura.

2.- Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura administrazio-prozedura bat da, eta horren bidez balioztatzen du autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak lurzorua uneko edo aurreikusitako erabilera-egokia den, baimendutako entitate batek egindako lurzorua kalitatearen ikerketa-txostenen arabera. Horretarako, nahitaez, ezagutu egin behar da lurzoruan eta kaltetuta egon daitezkeen beste ingurune batzuetan dauden kutsatzaileen kontzentrazioa, eta ikerketa-fase bakoitzari dagozkion irizpideen arabera ebaluatu kontzentrazio hori.

3.- Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura administrazio-prozedura bat da, eta horren bidez balioztatzen du ingurumen-organismoak industria-erabilera-egokia duen lurzorua gaitasuna, 24. artikuluan jasotako kasuetan. Ondorio horietarako, industria-erabilera hartzen dira "B-EBA" B Ebaluazioko Balio Adierazleak aplikatzen zaizkien erabilerak. Nahitaez lurzorua egoeraren txosten bat lantzea eskatzen du horrek.

8. artikulua.- Lurzoruaren egoeraren txostenak.

1.- Lurzoruaren egoeraren txostenen xedea hau da: lurzorua kutsa dezakeen jardura edo instalazioen bat dagoen edo egon den lurzoruan kutsadura garrantzitsuak gertatu ote diren edo gerta daitezkeen balioztatzea.

2.- Balioztatzea honako hauetan oinarrituko da: maneiatutako substantzia arriskutsuak eta sortutako hondakinak; instalazioen ezaugarriak eta ezarritako prebentzio-, babes-, kontrol- eta segimendu-neurri zehatzak; eta jardura edo instalazioa dagoen ingurunea.

3.- Lurzorua kutsa dezaketen jardura eta instalazioen kategorien arabera -zeinak lege honen II. eranskinean zehazten baitira-, zehaztasun-maila, eduki eta maiztasun desberdinak finkatuko dira erregelamenduetan, aurkeztu behar diren lurzorua egoeraren txostenetarako, eta administrazio-mailako onurak gehituko dira Europako EMAS Erregistroan inskribatutako erakundeen kasuetan.

9. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa.

1.- Miaketazko ikerketaren xedea hau da: lurzorua eraldatuta edo kutsatuta egotea ekar dezakeen substantzia kutsatzaileen kontzentrazioa ba ote den egiaztatzea.

2.- Ikerketa horren barruan honako hauek sartzen dira: lurzorua gainean garatutako jardueren inguruko ikerketa historiko bat egitea; ingurune fisikoaren ezaugarri nabarmenen datuak lortzea; eta laginak hartu eta analisiak egitea. Analisiak ikertu beharreko eremu osoko ingurune garrantzitsuetan (lurzoruan, uretan eta airean) dauden substantzia kutsatzaileen zerranda egitea ahalbidetuko du, horiek espazioan duten banaketa mugatzeko eta azterketa-eremuan bereizitako azpiero bakoitzean agertutako substantzien kontzentrazioa adierazteko. Ikerketa horren emaitza ikerketaren txostena egitea izango da, eta erregelamendu bidez zehaztuko da edukia.

3.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharren kasuan, biltegi horiek hartzen duten leku osoa ikertuko da, nahiz eta prozedura hastea eragin duen ekintzak biltegiaren zati bati



bakarrik eragin. Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi horiei eragiten dieten erabilera publikoko obren kasuan, obra hori egingo den zatia bakarrik ikertzea onartu ahal izango du ingurumen-organoak, salbuespen gisa.

10. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehea.

1.- Ikerketa xehearen helburua hau da: arrisku onartezina izan dezaketen lurzoruetan, bide eman behar du kutsadurak eraginda egon daitezkeen lurzoruetan eta gainerako inguruneetan dauden substantzia kutsatzaileen motak, kontzentrazioa eta banaketa zuzen zehazteko, baita substantzia kutsatzaileak egoteagatik ingurumenak eta pertsonen osasunak dituen arriskuak kuantifikatzeko ere.

2.-. Ikerketa horretan sartuko dira: laginak hartzeko eta kimika-analisiak egiteko kanpaina bat edo gehiago eta ingurune fisikoaren eta giza ingurunearen azterketa sakon bat. Halaber, kasuen arabera, arriskuen analisi bat, lurzorua oneratzeko aukeren azterketa bat, oneratzeko plan bat eta gaika hondeatzeko plan bat egingo dira. Ikerketa horren emaitza ikerketaren txostena egitea izango da, eta erregelamendu bidez zehaztuko da edukia.

11. artikulua.- Arriskuen analisia.

1.- Zenbait parametro identifikatu, neurtu eta konparatzeko prozesua da arriskuen analisia; horren bidez, kaltetutako inguruneetan substantzia jakin batzuk egoteak pertsonen osasunerako eta ingurumenerako izan ditzakeen arriskuak analizatu eta arriskuon ezaugarriak zehazten dira.

2.- Ikerketa xehearen edukia den aldetik, lurzoruaren kutsadurak eragin diezaiekeen objektu guztiak hartu behar dira kontuan arrisku-analisan. Aintzat hartuko da ea ondorio kaltegarriak sor daitezkeen, lurzoruaren eta kaltetutako beste ingurune batzuen kutsaduraren ondorioz, pertsonen osasunean eta, kasuaren arabera, ekosistemen funtzionamenduan; eta, aldi berean, kutsadura beste ingurune batzuen bidez barreiatzeko aukerak ebaluatuko dira (bereziki, uraren bidez), eta kutsadurak produktibitatean eta azpiegituretan izan dezakeen eragina ere bai. Ikerketa xehea egiteko unean lurzoruak duen erabilera edo aurreikusitako erabilera kontuan hartuta balioztatuko da arriskua.

3.- Arriskuen analisiaren gutxienezko edukia erregelamendu bidez zehaztuko da.

12. artikulua. Aukeren azterketa eta lurzorua oneratzeko plana.

1.- Lurzorua oneratzeko aukerak aztertzea ikerketa xehearen edukiaren zati da, eta azterketa horren helburua ikertutako lurzorua saneatzeko aplikatu daitezkeen teknikak eta neurriak identifikatu eta horiek konparazioz balioztatzea da. Balioztatze-prozesuan, teknika, ingurumena, ekonomia edo intereseko beste edozein alderdi hartuko da kontuan.

2.- Lurzorua oneratzeko planaren xedea, berriz, erregelamendu bidez zehaztuko den edukiarekin, 39. eta 40. artikuluetan finkatzen diren oneratzeko helburuak lortzen direla bermatzeko egin beharreko ekintzak diseinatzea da; kasu guztietan, eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da.

13. artikulua.- Gaika hondeatzeko plana.

1.- Gaika hondeatzeko planaren xedea hau da: lurzorua kutsa dezakeen jarduera bat dagoen edo egon den leku batean edo kutsadura horrek eragin dion leku batean hondeaketa-ekintzak planifikatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren alderdiak garatzea, leku horietan A



Ebaluazioko Balio Adierazleak gainditu direnean (A-EBA). Ingurumenaren aldetik hondeaketaren segimendua eta kontrola bermatu behar ditu planak, erregelamendu bidez zehaztuko den edukiarekin, eta, nolahi ere, hondeatutako materialak zuzen berrerabiltzea edo kanpoan zuzen kudeatzea optimizatu eta ziurtatuko du.

2.- Gaika hondeatzeko plana beharrezkoa izan daiteke, bai hondeatzea eraikuntza-proiektuaren beharrek arrazoitzen dutenean eta bai aurreko artikuluan araututako aukerazterketaren ostean proposatutako oneratzeko-plana hondeatzea denean.

14. artikulua.- Lurzoruaren azken egoeraren ikerketa.

1.- Ikerketa horren xedea hau da: eraikuntza-arrazoiengatik lurzoria oneratzeko edo hondeatzeko neurriak hartu ondoren, behar adina datu ematea, datu horiekin bermatuz lurzoria oneratzeko aplikatutako teknikarekin edo egindako hondeaketarekin lortu egin ahal izan direla geratzen den lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko ingurumen-organoak eskatzen dituen helburuak. Ikerketa hori egin ondoren lantzen den agirian oinarrituta ziurtatuko da hondeaketaren ostean geratzen den lurzoria oneratu den eta zer kalitate duen.

2.- Oneratze-planean ezarriko den metodologia erabiliz oneratu da lurzoria, eta lurzoria oneratzeko neurriak bete osteko ikerketa egingo duen baimendutako entitatea ez da izango neurri horiek diseinatu, gainbegiratu edo bete dituen entitate bera.

III. KAPITULUA

LURZORUEN EDUKITZAILE EDO JABE DIREN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEN BETEBEHARRAK

15. artikulua.- Lurzoruaren babesa.

Lurzoruen edukitzaile edo jabe diren pertsona fisiko edo juridikoen oinarritzko betebeharra da lurzoria zaintzea, eta betebeharrak horretan sartzen da lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzea, bai eta lege honetan zehaztutako kasuetan neurriak hartzea ere -prebentzio-, babes-, oneratzeko- eta kontrol- eta segimendu-neurriak-.

16. artikulua.- Lurzoruaren egoera ezagutzea.

1.- Lurzoria kutsa dezaketen jarduera edo instalazio berriak jarri nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen lurzoruaren egoeraren txosten bat bidali beharko dute, jarduera edo instalazioa jartzeko egin behar den baimen-eskaerarekin edo jakinarazpenarekin batera, ingurumen-organo eskudunak, hala badagokio, lurzoruaren inguruko neurriak sar ditzan.

2.- Orobat, lurzoruaren egoeraren txostenak aldian-aldian eguneratzea eskatu ahal izango du ingurumen-organoak, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera. Edozelan ere, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuen araudiaren mende dauden instalazioek gutxienez 5 urtean behin aurkeztu beharko dituzte txosten horiek.

3.- 23. eta 24. artikuluetan jasotako kasuetan, IV. kapituluan arautzen diren lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedurari edo lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedurari hasiera eman beharko diote artikulua horietan jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen.

17. artikulua.- Lurzoruak eskualdatzea.

1.- Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazioren bat dagoen edo egon den lurzoruren baten jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek, lurzoru horiek eskualdatzean, eskualdatzea jasotzen duen eskritura publikoan jaso behar dute egoera horren berri.

2.- Notarioek ez dute emango baimenik lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauden edo egon diren lurzoruak eskuratzeko tituluak eskritura publiko batean formalizatzeko, ez bada era frogagarrian egiaztatzen eman zaiola eskuratzailari egoera horren berri.

3.- Jabetza-erregistratzaileek uko egingo diote lurzoru horiek eskuratzeko tituluak inskribatzeari, eskuratzailari jakinarazpena helarazi zaiola egiaztatu ezean.

4.- Goian azaldu diren betebeharrak eta debeku horiek beroriek aplikatuko dira hirigintza-plangintza betetzeko ekintzetan finkak eman eta lursailak esleitzen diren eragiketetan.

18. artikulua - Prebentzio- eta babes-neurriak.

1.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak -edo, hala dagokionean, Ingurumen Erantzukizunaren araudiaren arabera jarduera edo instalazio horien arduradun diren beste pertsona batzuk- behartuta daude prebentzio- eta babes-neurriak hartzera, zeinak ingurumen-organo eskudunak ezarriko baititu eta ekintza kutsatzaileak agertzea saihesteko eta ekintza horiek lurzorian dituzten ondorioak saihesteko edo txikiagotzeko behar direnak izango baitira.

2.- Prebentzio- eta babes-neurri horiek, oro har, honako hauetan sartuko dira: ingurumen-baimen bateratuan, sailkatutako jardueren lizentziak emateko prozeduran egindako neurri zuzentzaileen nahitaezko txostenean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, araudi sektorialetan jasotako baimenetan, eta, hala dagokionean, lurzoruaren kalitatea edo aurreikusitako erabilerarako gaitasuna nolakoa den adierazten duen ebazpenean.

3.- Halaber, aplikatu egin behar dira aplikatzekoa den araudi sektorialak ezartzen dituen prebentzio- eta babes-neurriak.

19. artikulua.- Lurzorua oneratzeko neurriak.

1.- Lurzorua kutsatu edo eraldatzen duten jarduera edo instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak -edo, hala dagokionean, Ingurumen Erantzukizunaren araudiaren arabera jarduera edo instalazio horien arduradun diren beste pertsona batzuk- behartuta daude lurzorua oneratzeko autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ezartzen dituen neurriak hartzera. Betebeharrak hori, aurreko pertsona horien ordez, lurzoruaren jabe edo edukitzaileei ere badagokie.

2.- Lurzorua oneratzeko neurriak, oro har, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ebazpenetan sartuko dira.

20. artikulua.- Kontrolatzeko eta segimendua egiteko neurriak.

1.- Lurzorua kutsatu edo eraldatzen duten jarduera edo instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak -edo, hala dagokionean, Ingurumen Erantzukizunaren araudiaren arabera jarduera edo instalazio horien arduradun diren beste pertsona batzuk- behartuta daude autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ezartzen dituen kontrol- eta segimendu-

neurriak hartzera. Horrelako pertsonarik egon ezean, lurzoruaren jabe edo edukitzaileei dagokie betebeharrak.

2. Kontrol- eta segimendu-neurri horiek, oro har, honako hauetan sartuko dira: ingurumen-baimen bateratuan, sailkatutako jardueren lizentziak emateko prozeduran egiten den neurri zuzentzaileen nahitaezko txostenean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, araudi sektorialetan jasotako baimenetan, eta, hala dagokionean, lurzoruaren kalitatea edo aurreikusitako erabilerrako gaitasuna nolakoa den adierazten duen ebazpenean.

3.- Halaber, aplikatu egin behar dira aplikatzekoa den araudi sektorialak ezartzen dituen kontrol-eta segimendu-neurriak.

21. artikulua.- Kautelazko neurriak.

Kalteak berehala gertatzeko edo kalte berriak sortzeko mehatxu bat dagoelako presazko eta salbuespenezko arrazoiak daudenean, prebentzio- eta babes-neurriak, kontrol- eta segimendu-neurriak eta lurzoria oneratzeko neurriak hartzeko agindu ahal izango du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak. Aldez aurretik, pertsona interesdunei entzunaldia eskainiko die, eta ebazpen arrazoituaren bidez aginduko du neurriak hartzeko, arduradunak nortzuk diren zehaztuta. Horrek ez du baztertzen aurreko artikuluetan ezarritako prozedurak betetzea. Neurri horiek hartzeko eskakizuna egiteak ez du baztertuko zigortzeko araubidean ezarritakoa.

22. artikulua - Jakinarazteko betebeharrak.

1.- Substantzia kutsatzaileen eraginpean dauden lurzoruen edukitzaile edo jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek, eragin hori detektatu eta berehala eman behar diote horren berri autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari, organo horrek hartu behar diren neurriak ezar ditzan eta neurriok betetzera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak zehaztu ditzan, Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Informazio hori autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari eman beharko zaio, lurzoruetan lurzoria kutsa dezaketen jardura edo instalazioak egon zein ez.

2.- Lur-hondeaketak edo lur-mugimenduak egiten direnean lurzoria kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik detektatzen bada, ekintza horien arduraduna behartuta egongo da horren berri berehala tokian tokiko udalari eta autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari ematera, organo horrek zer neurri hartu behar diren eta neurriok zein pertsona fisiko edo juridikoak bete behar dituen zehaztu dezan.

3.- Beren eskumenen esparruan lurzoria kutsa dezakeen jardura edo instalazio bat utzi edo jarri dela dakiten herri-administrazioek berehala jakinarazi beharko diote hori autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari.

4.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, bere aldetik, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren eta lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedurak hasteko jasotzen dituen eskaeren berri emango die tokian tokiko udalei.

5.- Lege honetan araututako prozedura eta ekintzetan, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak administrazio hidrauliko eskudunari jakinaraziko dio lur azpiko urak kutsatuta egoteko adierazleak edo aztarnak daudela edo kaltea eragin dela zuzenean nahiz kutsatutako lur azpiko ura migratzean, interes hidrogeologikoko lekuetan, jabari publiko



hidraulikoan eta itsas-lehorrekoan eta hidrologia-planetako babestutako eremuen erregistroko tokietan.

IV. KAPITULUA

LURZORUAREN KALITATEAREN ARLOKO ADIERAZPENAK

23. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren kasuak.

1.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari dagokio lurzoruaren kalitatearen adierazpena egitea, honako hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru batean, jarduera bat jarri edo handitzea.

b) Lur-mugimenduak egitea lurzoria kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egon den leku batean, gaur egun jardunean ez dagoenean.

c) Lurzoria kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat behin betiko uztea.

d) Kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzea.

e) Arriskua eragin ahal izateko adinako kontzentrazioetan lurzoruan substantzia kutsatzaileak daudelako zantzu oinarrituak.

f) Lurzoruaren jabe edo edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatzea.

2.- Aurreko artikuluko zatian jasotako ekintzaren baten ondorioz egin behar diren lur-mugimenduak egiteko, gaika hondeatzeko plan bat onartu beharko du alde aurretik autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, kasu horretako lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduran.

24. artikulua.- Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren kasuak.

Aurreko artikuluko lehen zatiko a) edo c) letretan jasotako kasuetan bakarrik, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari dagokio lurzoru bat lege honen ondorioetarako industria-erabilerarako gai dela adieraztea, baldin eta prozedura horretako lurzoruan egon den jarduera, lege honen II. eranskinaren arabera, kutsatzeko ahalmen ertaina duen jarduera gisa sailkatuta badago.

25. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozeduretatik salbuesteko kasuak.

1.- Ez da beharrezkoa izango lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozedurak hastea, 23. artikuluko kasuren bat jazo arren aldi berean honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Lurzoria industria-erabilerarako denean, eta 23. artikuluko lehen zatiko a) edo c) letretan jasotako kasuetan bakarrik, baldin eta lurzoru horretan egon den jarduera -lege honen II.

eranskinean adierazitakoaren arabera- kutsatzeko ahalmen txikiko jardueratzat sailkatuta badago eta ez bada aurreikusten leku horretan lurra mugitzerik edo zolata kentzerik.

b) Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den leku baten zati bat okupatzen denean, komunikazio-azpiegituretarako zutabeak eraikitzekeo lur-mugimenduen ondorioz edo argia, ura, gasa nahiz telekomunikazioak bezalako zerbitzu orokorrak jarri edo aldatzearen ondorioz.

c) Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat handitu edo aldatzean, handitu edo aldatu nahi den jarduera edo instalazioak hartzen duen lursailaren mugen barruan egiten bada.

2.- 1. artikuluko zatian ezarritakoaz gain, autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak salbuetsi egin ahal izango du lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduretatik, interesdunak hala eskatuta, baldin eta 23. artikuluko lehen zatiko c) letran deskribatutako egoera gertatzen bada eta jarduera edo instalazioaren zati bat utzi egiten bada, eta artikuluko bereko a) letran deskribatutako egoera gertatzen bada eta jarduerak garatzeko behin-behineko instalazioak baldin badira.

3.- 23. artikuluko lehen zatiko a) edo d) letretan jasotako kasuak gertatzen direnean eta aldeztu aurretik lurzoruaren kalitatearen adierazpen bat badagoenean, autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoan egin behar da kontsulta, ebazpen arrazoituaren bidez adierazpen horren balioaz irizpena eman dezan eta, behar izanez gero, balio horri eusteko baldintzak ezar ditzan.

4.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak salbuetsi egin ahal izango du, halaber, lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozeduretatik, baldin eta artikuluko bereko e) letran deskribatutako egoera gertatzen bada eta premiazko arrazoiengatik lurzorua oneratzeko neurriak hartzea gomendatzen bada.

5.- Hondeatu beharra sortzen duten aurreko kasu horietan guztietan, hondeatzen amaitutakoan, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu behar da ingurumen-organismoan, aldeztu aurretik materialak behar bezala berezita. Hondeaketa horrek ingurumen-organismoak erregelamendu bidez ezarritako atalaseak gainditzen dituzenean, gaika hondeatzeko plan baten arabera egingo da hondeatzekoak diren materialen karakterizazioa. Planak 13. artikuluan adierazitako edukia jaso behar du, eta ingurumen-organismoak onartu behar du plana, betetzen hasi aurretik.

26. artikulua.- Lizentziak eta baimenak baliogabetzea.

Erabat deusezak izango dira lizentziak, baimenak eta gainerako ebazpenak, baldin eta autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak aldeko erabakia eman ez badu lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren prozeduretan -prozedura horiek beharrezkoak diren kasuetan- edo hurrengo kapituluan arautzen denaren arabera prozedura horiek ebazteko gehienezko epea igaro ez bada.

V. KAPITULUA

Lehen atala: Lurzoruaren kalitatearen arloko prozeduren inguruko gai orokorrak

27. artikulua - Aldez aurreko kontsulta eta informazioa.

Aurreko kapitulan ezarritako lurzoruaren kalitatearen arloko prozeduraren bat sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek aurretiazko kontsulta bat egin ahal izango dute autonomia-erkidegoko ingurumen-organoan, honako hauek eskuratzeko: prozedura horien eskakizun tekniko eta juridikoen gaineko informazioa, prozedura hasteko eman beharreko datuen zehaztasuna edo beste edozein alderdi aipagarri.

28. artikulua.- Erregistroetan inskribatzea.

1.-Lurzoruaren kalitatearen adierazpenak eta lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenak bazterreko oharrean jasoko dira Jabetzaren Erregistroan, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoaren ekimenez.

2.- Era berean, lege honetako 47. artikuluan aipatzen den administrazio-erregistroan sartuko dira ebazpen horiek, oinarri izan den dokumentazioarekin batera.

29. artikulua.- Prozeduren arauak.

1.- Erregelamendu bidez ezarriko dira lurzoruaren kalitatearen arloan adierazpenaren prozeduretan aplikatuko diren arauak, eta kontuan izango dira 4. artikuluan finkatutako printzipioak eta ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikoa izateko eta justizia erabiltzeko eskubideak jasotzen dituen araudian ezarritako informaziorako eta parte-hartzerako bermeak.

2.- Arautu egingo dira bai lurzoruaren kalitatea zein den adierazteko prozedurak eta bai kutsatu edo eraldatutakotzat jotako lurzorua gero oneratu egingo dela ziurtatzeko prozedura, eta araudi horretan sartuko dira izapideak sinpletzeko neurriak, Europako EMAS Erregistroan inskribatutako erakundeen kasuetan.

Bigarren atala: Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura

30. artikulua.- Prozedura hastea.

1.- 23. artikuluko lehen zatiko a) letran jasotako kasuetan, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin beharko du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, jarduera jartzeko edo handitzeko gaitzen duten lizentziak edo baimenak eman aurretik.

2.- 23. artikuluko lehen zatiko b) letran jasotako kasuetan, hondeaketa baimentzeko ebazpena eman beharko du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, lur-mugimenduak egiteko gaitzen duten lizentziak edo baimenak eman aurretik.

3.- 23. artikuluko lehen zatiko c) letran jasotako kasuan, jarduera edo instalazioa behin betiko uzten denetik gehienez bi hilabeteko epean, uzte horren berri eman beharko dio titularrak autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari. Ohar horrekin batera, lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako egingo dituen ekintzen proposamena aurkeztuko da, edo, desjabetze-ekintza baten ondorioz utzi bada jarduera edo instalazioa, gertaera hori

egiaztatzen duen dokumentazioa. Aurkeztutako oharra ikusita, jarduera edo instalazioa utzi duenak zein betebeharrak dituen ezarriko du ingurumen-organismoak, eta, hala dagokionean, prozedura hasteko ematen den gehienezko epea ere bai.

Jarduera uztea konkurtso-prozedura baten ondorio denean, agintaritzak judizialak izendatutako konkurtso-administratzaileek bete beharko dute betebeharrak hori.

4.- 23. artikuluko lehen zatiko d) letran jasotako kasuan, honako hauek egin baino lehen eman beharko du lurzoruaren kalitatearen adierazpena ingurumen-organismoak: lurzoria kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lursailaren edo lursailen antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen, edo bitarteko horiek aldatu baino lehen, eta, ahal dela, prozedura horien hasierako faseetan.

Hala ere, leku horretan guztian edo zati batean lurzoruaren kalitatea ikertzea eragozten duten egoerak gertatzen badira, kasuan kasuko antolamendu-bitartekoa behin betiko onartu ahal izango da, lurzoruaren kalitatearen adierazpenik gabe. Kasu horretan, Hirigintzako Ekintzen Programari hasierako onespina eman aurretik egin beharko da adierazpen hori; edo, horrelako programarik ezean, lekua barne hartzen duen kudeaketa-esparruko Birpartzelazio eta Urbanizazio Proiektuei hasierako onespina eman aurretik.

5.- 23. artikuluko lehen zatiko e) letran jasotako kasuan, prozedura hastea eskatzeko aurretiazko ebazpena emango du autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak, eta hor zehaztuko dira prozedura hasteko epea eta hori egin behar duen pertsona edo pertsonak.

31. artikulua.- Prozedura hasteko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduraren mende dauden ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek prozedura hastea eskatu beharko diote autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoari, eta miaketazko ikerketaren txostena bidali, eta, hala badagokio, baimendutako entitate batek egindako ikerketa xehearen txostena ere bai.

32. artikulua.- Herritarren parte-hartzea.

1.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak parte-hartze publikoaren izapidea egingo du prozeduran, baldin eta arriskuaren analisisan arriskua onartezina dela ondorioztatzen bada edo baldin eta lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanetan B Ebaluazioko Balio Adierazleak analizatutako parametroren batean 100 bider baino gehiagotan gainditzen direla egiaztatzen bada (B-EBA).

Halaber, prozeduran jendaurreko informazioaren izapidea betetzea erabaki ahal izango du autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak, hori gomendatzen duten arrazoi justifikatuak daudenean.

2.- Aurreko artikuluko zatian ezartzen den parte-hartze publikoaren izapidea egiteko, iragarkia jarriko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan.

33. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpenaren edukia.

1.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpenaren ebazpenean adieraziko da lege honek ezarritakoaren arabera lurzoria kutsatuta, eraldatuta edo eraldatu gabe dagoen.



Lurzoru bat kutsatuta dagoela adierazten bada, eten egin ahal izango da eraikitzeo eskubideak eta lurzoruaren beste aprobetxamendu batzuk erabiltzeko eskumena, baldin eta horiek bateraezinak badira lurzorua oneratzeko ezartzen diren neurriekin, harik eta neurri horiek bete arte edo lurzorua ez dagoela kutsatuta adierazi arte.

2.- Beharrezkotzat joz gero, xede horretarako behar adinako abalak, fidantzak edo beste berme batzuk eratzea eskatu ahal izango da, ezarritako neurriak beteko direla bermatzeko.

34. artikulua.- Prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea.

1.- 23. artikuluko lehen zatiko a), b) eta d) letretako kasuetan, prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea ezin daiteke izan sei hilabete baino gehiagokoa; eman egin ahal izango dira lurzoruarentako aurreikusitako ekintzak egiteko gaitzen duten eskumenak, lizentziak eta baimenak, baldin eta ez bada eman berariazko ebazpenik aipatutako epean, baldintza hori bete egiten dela egiaztatu ondoren.

Oneratze-plana lurzoruaren kalitatearen adierazpena eman ondoren aurkezten denean, ingurumen-organoak gehienez 3 hilabeteko epean eman beharko du plana onartzeko dagokion ebazpena, aldez aurretik interesdunei 15 egunez entzunaldia eskaini ondoren.

Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduran gaika hondeatzeko plan bat onartu behar denean, plan hori onartzeko epea 5 hilabetekoa izango da; eta hilabete bateko epea egongo da lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko azken txostena aurkezten denetik. Txosten horretan egiaztatuko dira baimendutako ekintzak eta lurzoruaren azken egoeraren ikerketa.

2.- Bestalde, 23. artikuluko lehen zatiko c), e) eta f) letretako kasuetan, prozeduraren hasieratik sei hilabete igaro eta lurzoruaren kalitatearen adierazpenik egin ez bada, iraungi egingo da prozedura.

Hirugarren atala: Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura.

35. artikulua.- Prozedura hastea.

Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozeduren mende dauden ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek prozedura hastea eskatu beharko diote ingurumen-organoari, eta baimendutako entitate batek landutako lurzoruaren egoeraren txostena bidali.

36. artikulua.- Prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea.

Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura ebazteko epea ezin daiteke izan hiru hilabete baino gehiagokoa; aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ezean, aurreikusitako ekintzak egiteko gaitzen duten eskumenak, lizentziak eta baimenak eman egin ahal izango dira.



Laugarren atala: Salbuesteko prozedura.

37. artikulua.- Salbuespen-kasuen berri ematea.

25. artikuluko 1. zatian jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek alde zuzenetik ohar bat bidali beharko dute ingurumen-organora, erregelamendu bidez ezartzen den informazioarekin batera, eta, hala dagokionean, zer azalera eta bolumen hondeatuko den adieraziko dute; ingurumen-organoak ez du eman beharko ohar horren inguruko berriazko erabakirik.

38. artikulua.- Salbuespenen ebazpenak.

1.- 25. artikulua 2. eta 3. zatietan jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek jakinarazi egin beharko diote ingurumen-organuari zein ekintza zehatzetarako eskatzen den salbuespena. Jakinarazpen horrekin batera, erregelamendu bidez ezartzen den informazioa bidali beharko da.

2.- Jakinarazpen horren inguruko erabaki bat eman beharko du ingurumen-organoak, gehienez hilabeteko epean, eta aldekoa dela ulertuko da epe horretan ematen ez bada.

3.- 25. artikuluko 4. zatian jasotako salbuespenaren kasuan, salbuespenaren adierazpena ofizios emango du ingurumen-organoak. Ebazpenean, honako hauek zehaztuko dira: lurzorua oneratzeko zein neurri hartuko diren, zein pertsona arduratuko den neurriak betetzeaz, neurriak betetzeko epea zein izango den eta zein agiri aurkeztu beharko diren ingurumen-organon neurri horiek hartu direla egiaztatzeko.

VI. KAPITULUA

LURZORUAREN KALITATEA ONERATZEA

Lehen atala: Lurzoruaren kalitatea oneratzeko neurriak norainokoak izango diren eta neurri horiek betetzeko ardura zeinek izango duen.

39. artikulua.- Kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzeko neurriak norainokoak izango diren.

1.- Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra indarrean jarri aurretik gertatu bada ekintza kutsatzailea, kutsatutzat jotako lurzorua oneratzeko neurrien helburua lurzoruak duen edo izango duen erabilerrako funtzioak betetzeko gaitasuna ematea izango da, eta eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da horretarako.

2.- Baldin eta 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri ostean gertatu bada ekintza kutsatzailea, kutsatutzat jotako lurzoru bat oneratzeko neurrien xedea lurzorua lehengo egoerara bihurtzea izango da, edo, egoera hori ezagutu ezean, kalitate-estandar batzuk lortzea: gutxienez "B-EBA" B Ebaluazioko Balio Adierazleen parekoak edo petrolioaren guztizko hidrokarburoen baliokideak (TPH) eta, hala dagokionean, urarentzat ezarritakoen parekoak. Horretarako, eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da.

40. artikulua.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak norainokoak izango diren.

1.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak ezartzeko, eraldatzea eragin duen ekintza 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean sartu ostekoa izan beharko da.

2.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurrien xedea lurzoria lehengo egoerara bihurtzea izango da, edo, egoera hori ezagutu ezean, lurzoriaren kalitate-estandar batzuk lortzea: gutxienez "B-EBA" B Ebaluazioko Balio Adierazleen parekoak edo petrolioaren guztizko hidrokarburoen baliokideak (TPH) eta, hala dagokionean, urarentzat ezarritakoen parekoak. Horretarako, eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da.

41. artikulua.- Hondakinen araudiarekiko bateragarritasuna.

Aurreko artikuluetan adierazitako oneratzeko neurrien norainokoa ezartzean, ez da eragotziko hondakinen arloan indarrean dagoen araudi sektoriala aplikatzea, eta zuzen kudeatu beharko dira bai leku horretan dauden hondakinak eta bai lurzoria kutsa dezakeen jardura edo instalazioa eraisteko jardueretan sor daitezkeen hondakinak ere.

Halaber, lurzoriaren kalitatearen ikerketan zehar aurkitu diren eta jatorri antropikoa duten hondakinak kentzeko eta zuzen kudeatzeko eskatu ahal izango du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, bereziki hondakin arriskutsuak direnean.

42. artikulua.- Zein pertsona fisiko edo juridiko dauden behartuta kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzera.

1.- 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri aurretik kutsatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko betebeharra kutsadura hori eragin duen pertsona fisiko edo juridikoari dagokio; pertsona bat baino gehiago direnean, betebeharrak horren erantzukizuna era solidarioan hartuko dute. Horien ordez, betebeharrak hori lurzoruen jabe eta edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridikoena izango da, hurrenkera horretan.

2.- 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri ostean kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko betebeharra lurzoriaren kutsadura edo eraldaketa hori eragin duen pertsona fisiko edo juridikoari dagokio; pertsona bat baino gehiago direnean, betebeharrak horren erantzukizuna era solidarioan hartuko dute. Horien ordez, betebeharrak hori lurzoruen jabe eta edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridikoena izango da, hurrenkera horretan.

3.- Hala ere, lurzoriari erabilera berri bat emateko hartu behar badira lurzoria oneratzeko neurri osagarriak, eta lurzoriaren erabilera berriak kalitate-maila handiagoak eskatzen baditu kutsadura sortu zen unean lurzoruak zeukan erabilerari dagozkionak baino, neurri horiek hartzea ezingo zaio eskatu kutsadura sortu zuenari. Kasu horretan, erabilera berriaren sustatzaileak hartu beharko ditu lurzoria oneratzeko neurri osagarri horiek.

4.- 1. eta 2. artikuluzatietan xedatzen den bezala kutsatutako lurzori bat oneratzeko neurriak hartu behar dituena salbuetsi egin ahal izango du ingurumen-organoak neurriak hartzearen kostuak ordaintzeko eginkizunetik, baldin eta betebeharrak hori duenak frogatzen badu ez dela hutsegiterik edo zabarkeriarik egon eta hauetakoren bat izan dela kutsaduraren eragile:

a) Organo eskudunak berariaz baimendutako botatze edo gertakari bat, baldin eta dena delako botatzearen edo gertakariaren egunean indarrean zegoen araudiarekin bat etorritik ezarritako baldintzen arabera egin bazen.



b) Botatze edo jarduera bat, edo jarduera batean produktu bat erabiltzeko edozein modu, baldin eta frogatzen bada botatze edo jarduera hori egin zen uneko ezagutza zientifiko eta teknikoen egoeraren arabera lurzorurako kaltegarritzat hartzerik ez zegoela botatze, jarduera edo erabilera-modu hori.

5.- Aurreko artikuluzat jotako kasuan, eta betiere lurzoria une horretan duen erabilerarako kutsatutzat jo denean, ingurumen-organoak bere gain hartu ahal izango du hura oneratzeko neurrien kostua, hurrengo artikuluzat jotako ezartzen diren baldintzekin.

6.- Kutsatutako lurzoria oneratzeko neurriak hartzeko, elkarren artean lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ditzakete neurriak hartu behar dituztenek eta herri-administrazioek, laguntza publikoak ematea barne dela, honako konpromiso honekin: lurzoria oneratu ondoren lurzoria lortutako gainbalioetatik, horiek oneratzeko finantzatu duen herri-administrazioari itzuliko zaiola berak jarritako kopurua, lege honetako 49. artikuluan ezarritako moduan.

Halaber, borondatezko akordioak izenpetu ahal izango dira kutsatutako eta eraldatutako lurzoria oneratzeko neurriak hartzeko, neurri horiek hartzeko betebeharra duten pertsona fisiko eta juridikoen artean, lege honetan xedatutakoaren arabera.

Akordio horiek izenpetzeak ez du salbuetsiko bere erantzukizunetik lurzoria oneratzeko eraldaketa eragin duena, edo, hala dagokionean, jabea, edukitzailea edo ekintzaren sustatzailea den pertsona fisiko edo juridikoa.

7.- Horretara behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoen ez badituzte lurzoria oneratzeko neurriak hartzen autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ezarritako epeetan, gehienez ondoko behartzeko bost isun jartzea erabaki ahal izango du ingurumen-organoak, eta hartu beharreko neurriek guztira duten kostuaren % 10ekoa izango da gehienez horietako bakoitza. Horretaz gain, betearazte subsidiarioa behartuaren kontura izatea ere erabaki ahal izango du, hondakinen eta kutsatutako lurzoruen 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoa betetzeari utzi gabe eta ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera jarri beharreko zigorrak alde batera utzi gabe.

8.- Lege honen ondorio diren diru-betebeharren erantzule solidarioak edo subsidiarioak izango dira Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 24ko 26/2007 Legearen 13. artikuluan jasotzen diren subjektuak, artikuluzat jotako horrek ezartzen duen bezala.

Bigarren atala: Lurzoria oneratu direla egiaztatzeko prozedura

43. artikulua.- Kutsatutako eta eraldatutako lurzoria oneratu direla egiaztatzea.

1. Kutsatutako edo eraldatutako lurzoria oneratzeko neurriak hartzen dituztenek lurzoria oneratzeari eraginkortasunaren inguruko txosten bat aurkeztu behar diote autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari, lurzoria oneratzeko ikertu eta oneratzeko baimendutako entitate batek landua.

2.- Kutsatutzat edo eraldatutzat jotako lurzoria oneratu dela autonomia-erkidegoko ingurumen-organoan egiaztatu ondoren, organo horrek ebazpen bat emango du, gehienez bi hilabeteko epean, pertsona interesdunei 15 eguneko entzualdia eskaini ondoren.



44. artikulua.- Herri-onura.

Kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzea herri-onurakotzat jotzen da desjabetze-ondorioetarako.

VII. KAPITULUA

LURZORUEN INGURUKO POLITIKAREN BITARTEKOAK

45. artikulua.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa.

1.- Lege honetan ezarritako betebeharrak betetzea errazteko, lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauden edo egon diren lurzoruen inbentario bat mantenduko du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, eta han jasoko da, une oro, osorik eta eguneratuta, lurzoru horien inguruan ingurumen-organoak daukan informazioa.

2.- Inbentariorako sarbidea publikoa eta doakoa izango da, eta osorik berrikusiko da bost urtean behin gutxienez; inbentarioa berrikusteko prozeduran, bermatu egingo da beharrezkoa den herritarren parte-hartzea.

3.- Dena den, lege honetan jasotako betebeharrak lurzoru batean lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egoteari edo egon izanari zor zaizkio, eta ez inbentario horretan egoteari. Inbentario hori informazio-iturri bat besterik ez da.

46. artikulua - Lurzoruen Plana.

1. - Autonomia-erkidegoko Jaurlaritzak, ingurumen-organoak proposatuta, Lurzoruen Plana onartuko du, lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloan jarduteko jarraibideak ezartzeko, lege honetako irizpideekin bat etorriz.

2.- Lurzoruen Planean zehaztuko dira jarraibide estrategikoen garapena, plana indarrean izango den aldian egin beharreko ekintzak eta plana praktikan jartzeko bitarteko egokiak.

Era berean, plan horretan finkatuko da hurrengo artikuluan azaltzen den Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan jasotako datuak kontuan hartuta jarduteko lehen tasun zerranda, kutsadurak ingurumenerako eta pertsonen osasunerako dakarren arriskua aintzat hartuta.

3.- Plana indarrean dagoen aldia amaituta, hura aldatzea edo egokitzea komeni den aztertuko du ingurumen-organoak, eta, nolahi ere, hartutako erabakiaren berri emango dio autonomia-erkidegoko Jaurlaritzari.

47. artikulua.- Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren xedea lurzorua babestearen gaian segurtasun juridikoa eta informazio-eskubidea bermatzea da.

2.- Lurzoruaren kalitatearen arloko prozedurak ezartzean lortzen den informazio guztia jasoko du Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroak.

3.- Erregistroan jasotako puntuen ziurtagiriak egingo ditu autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak, ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeko eskubidearen gaineko legerian finkatuta dagoen moduan eskatzen bazaizkio, datu pertsonalak babestearen gaineko legerian xedatutakoa alde batera utzi gabe.

48. artikulua.- Lurzoruak ikertu eta oneratzeko baimendutako entitateak.

1.- Baimena nahitaezko baldintza izango da, honako hauek egin ahal izateko: miaketazko ikerketak, ikerketa xeheak eta lurzoruaren kalitatearen azken egoeraren ikerketak diseinatu eta egin; lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenak lortzeko lurzoruaren egoeraren txostenak landu; lurzoru oneratzeko neurriak diseinatu, gainbegiratu eta, hala badagokio, bete; gaika hondeatzeko planak landu eta gainbegiratu; kontrol- eta segimendu-neurriak diseinatu eta bete; prebentzio- eta babes-neurriak diseinatu eta nola betetzen diren gainbegiratu. Era berean, nahitaezkoa izango da baimena, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak lege honen arabera bere esku dituen eginkizunetan administrazioarekin elkarlanean aritzeko.

2.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak baimenduko ditu baimentzea eskatzen duten entitateak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzen eta prozeduraren arabera. Alderdi hauek arautuko dira:

- a) Eskatutako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren antolamendua, instalazioak, langileak eta tresneria edukitzea.
- b) Berme bat eratzea sor daitekeen erantzukizunerako.
- c) Ebaluatu eta aztertu beharreko enprekin dauden bateraezintasun komertzialak zehaztea.
- d) Langileek beharrezko lanbide-prestakuntza izatea beren eginkizunak betetzeko.
- e) Egiaztapenaren eskaera eta prozedura.
- f) Egiaztapenerako betekizunak mantentzea.
- g) Baimendutako entitateen erregistroa.
- h) Europako EMAS Erregistroan inskribatutako erakundeen kasuan administrazio-izapideak sinpletzeko neurriak.

49. artikulua.- Diru-laguntzak.

1.- Lege honetan xedatutako eginbeharrak betetzeko, pizgarri gisa, diru-laguntzak eta mailegu pribilegiatuak eman ahal izango dira, eta onura fiskalak ezarri. Pizgarri horiek ezingo zaizkio eman lurzoru kutsatu edo eraldatu duenari, 42. artikuluan xedatutako kasuetan izan ezik.

2.- Nolanahi ere, eginbehar horiek, osorik edo zati batean, finantzaketa publikoaz baliatuz betetzen badira, aldeztu aurretik berme bat eratu beharko da laguntzak jaso ahal izateko. Berme horren helburua honako hau ziurtatzea da: eginbeharrok betetzean lurzoruak lortutako gainbalioetatik, horiek oneratzeko finantzatu duen herri-administrazioari itzuliko zaiola diru-laguntza gisa emandako kopurua.

50. artikulua.- Finantzaketa publikoa.

Lege honetan ezarritako ekintzak finantzatzeko, autonomia-erkidegoko administrazioak baliabide hauek erabiliko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako diru-hornidurak, estatuaren eta Europar Batasunaren ekarpenak eta aurrekontu-araubidearen gaian indarrean dagoen legeriaren arabera lege hau aplikatzeko jar daitezkeen gainerako baliabideak.

51. artikulua.- Ikuskaritza eta zaintza.

1.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organuari dagokio EAEko lurzoruaren babesaren arloan lurzoruak zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko ahalmenak erabiltzea.

2.- Zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko lan horiek zuzenean autonomia-erkidegoko ingurumen-organok egin ahal izango ditu, bere kabuz edo lhobe sozietate publikoaren bitartez; edo, bestela, lege honen 48. artikuluan aipatzen diren baimendutako entitateen bidez egin ahal izango dira.

Zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko lanei lehenetsia emango zaie, edozelan ere, kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartu diren tokietako lurzoruetan eta eraldatutako lurzoruak mugitzea dakarten ekintzetan.

3.- Ikuskatze-lanak egiten dituzten ingurumen-organoko langileak, eginkizun hori betetzean, agintaritzaren agente izango dira.

4.- Agintaritza eskudunarekin eta hark baimendutako entitateekin elkarlanean aritzera behartuta daude: lurzoria kutsa dezaketen jarduera edo instalazioen titularrak, jarduera edo instalazio horiek dauden edo egon diren lurzoruaren edukitzaileak edo jabeak eta jarduera edo instalazio horien ondorioak jasan dituzten lurzoruaren edukitzaileak edo jabeak. Horiek guztiak aukera emango dute azterketak, kontrolak, laginketak eta informazio-bilketak egiteko edo lege honetan eskatzen den beste edozein ekintza egiteko.

VIII. KAPITULUA

ZIGORTZEKO ARAUBIDEA

52. artikulua.- Arau-haustek.

Lege honen arabera arau-haustek hurrengo artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta oso larri, larri eta arin gisa sailkatuko dira.

53. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

1.- Ondorengo gertakariak arau-hauste oso larriak dira, pertsonei, beren ondasunei edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten dizkietenean:

a) Lurzoruan objektuak, produktuak, hondakinak edo substantziak kontrolik gabe uztea, isurtzea edo ezabatzea.

b) Kautela-, prebentzio-, babes- edo kontrol- eta segimendu-neurririk ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea.

- c) Kutsatutzat jotako lurzoruetan horiek oneratzeko neurririk ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea.
- d) Lege honetan xedatutakoaren arabera nahitaezkoa izan arren, miaketazko ikerketak, ikerketa xeheak edo lurzoruaren azken egoeraren ikerketak ez egitea.
- e) Kutsatutzat jotako lurzoruetan, lurzoria oneratzeko neurririk hartu gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzoria erabiltzea.
- f) Lurzoruaren kalitatearen adierazpena aldeztetik eduki gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzoria erabiltzea, lege honetan xedatutakoaren arabera adierazpen hori beharrezkoa izan arren.
- g) Hondetzeko onespina aldeztetik eduki gabe lur-mugimenduak egitea, lege honetan xedatutakoaren arabera onespina hori beharrezkoa izan arren.
- h) Lege honetan araututako prozeduretan autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak emandako ebazpenetan jarritako baldintzak ez betetzea.
- i) Lurzoria oneratzeko neurriak hartzea behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoen eta herri-administrazioen artean izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen ondorio diren eginbeharrak ez betetzea.
- j) Baimendutako entitateei eskatzen zaizkien baldintzak ez betetzea eta entitate horiek lege honetan xedatutakoaren eta erregelamendu bidez ezarritakoaren aurkako jarduerak egitea.
- k) Lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko edozein bitartekotan lortutako datuak ezkutatu edo aldatzea.
- l) Kutsadura-zantzuak detektatu direla autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoari jakinarazteko betebeharra ez betetzea.

2.- Nolanahi ere, pertsonen, beren ondasunen edo ingurumenari arrisku larriak eragiten zaizkiela ulertzen da, arriskuen analisian arrisku onartezin bat dagoela ondorioztatzen denean.

54. artikulua.- Arau-hauste larriak.

1.- Arau-hauste larriak dira aurreko artikuluan aipatutakoak, pertsonen, beren ondasunen edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten ez dizkietenean.

2.- Arau-hauste larriak dira, halaber, hauek:

- a) Eraldatutzat jotako lurzoruetan horiek oneratzeko neurririk ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea, neurriok hartzeko agindu izan arren.
- b) Eraldatutzat jotako lurzoruetan, lurzoria oneratzeko neurririk hartu gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzoria erabiltzea, neurriok hartzeko agindu izan arren.
- c) Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpena aldeztetik eduki gabe, lurzoria horretan obrak edo jarduerak egitea edo lurzoria erabiltzea, lege honetan xedatutakoaren arabera adierazpen hori beharrezkoa izan arren.

d) Datuak isilean gordetzea edo emateari uko egitea, lege honek edo legea garatzen duen araudiak hori eskatzen duenean; edo agintaritzea eskudunak datu horiek eskatu dizkienean bai lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioen titular edo arduradun diren pertsona fisiko edo juridikoei edo bai jarduera edo instalazio horiek dauden edo egon diren lurzoruen edukitzaile edo jabe direnei.

e) Modu aktibo edo pasiboan administrazioaren ikuskaritze-lana oztopatzea.

3.- Nolanahi ere, arau-hauste larriak dira aurreko artikuluzatietan adierazitako ekintzak, arriskuen analisia egin behar denean arriskuen garrantzia balioztatzeko, gainditu egiten direlako "B-EBA" B Ebaluazioko Balio Adierazleak.

55. artikulua.- Arau-hauste arinak.

1.- Arau-hauste arinak dira aurreko artikuluan jasotako arau-hausteak, baldin eta beren kopurua edo garrantzia txikia delako larritzat sailkatzea merezi ez badu.

2.- Era berean, arau-hauste arina da, baldin eta arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo ez bada, xedapen hauetan ezarritakoa ez betetzea: lege hau eta legea garatzen duten arauak, lurzoruaren kalitatearen edo lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpena edo lege honetako prozeduretan autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak emandako beste edozein ebazpen.

56. artikulua.- Arau-hausteak preskribatzea.

Lege honek aipatzen dituen arau-hausteen preskripzioa ondorengo epeetan gertatuko da, betiere arau-haustea egin zen egunetik edo, kaltea berehalakoa izan ez bada, ingurumen-kaltea detektatzen denetik kontatzen hasita:

- a) Urtebetera, arau-hausteak arinak direnean.
- b) Hiru urtera, arau-hausteak larriak direnean.
- c) Bost urtera, arau-hausteak oso larriak direnean.

57. artikulua.- Mailakatzea.

1.- Lege honetan aipatutako arau-hausteengatiko zigorrak mailakatu egingo dira, eta, horretarako, kontuan hartuko dira: eragindako arriskua edo kaltea, arau-haustea izan den pertsona fisiko edo juridikoak lortutako etekina, nahita egin izana eta berriz egitea, eta inguruabar aringarriak edo astungarriak.

2.- Inguruabar astungarritzat eta aringarritzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 1998ko apirilaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 113. artikuluan ezarritakoak, aplikatzeak direnean.

58. artikulua.- Zigorrak.

Lege honetan xedatutako arau-hauste administratiboak egiteagatik, honako zigor hauek ezarri ahal izango dira:

- a) Arau-hauste arinengatik:



- 300 eurotik 24.000 eurorainoko isuna.
- Ohartarazpena.

b) Arau-hauste larriengatik:

- 24.001 eurotik 240.000 eurorainoko isuna.
- Instalazio osoak edo instalazioen zati bat aldi baterako ixtea: gehienez, hiru urterako.
- Jarduerak aldi baterako geraraztea: gehienez, hiru urterako.
- Baimendutako entitate izaera aldi baterako galtzea: gehienez, hiru urterako.

c) Arau-hauste oso larriengatik:

- 240.001 eurotik 1.500.000 eurorainoko isuna.
- Instalazio osoak edo instalazioen zati bat behin betiko ixtea.
- Jarduerak behin betiko geraraztea.
- Instalazioak aldi baterako ixtea: gehienez, sei urterako.
- Jarduerak aldi baterako geraraztea: gehienez, sei urterako.
- Baimendutako entitate izaera aldi baterako galtzea: gehienez, sei urterako.
- Baimendutako entitate izaera behin betiko galtzea.

59. artikulua.- Ezohiko kasuetan kautelazko neurriak hartzea.

Salbuespenez, eta zigor-espedita hasi aurretik, neurriak hartu ahal izango dituzte herri-administrazioek, edo lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein gertakariren ustezko arduradunari ezarri ahal izango dizkiote neurriok, entzunaldia eskaini ondoren: obrak edo jarduerak bertan behera utzi ahal izango dituzte, edo ingurumeneko kaltea zabaltzea saihestuko duen beste edozein zuzenketa-, segurtasun- edo kontrol-neurri hartu ahal izango dute. Neurri horiek ez dute zigor-izaerarik izango.

60. artikulua. Eskumenak.

Zigor-prozedura ebatzea Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloan eskumena duen saileko administrazio-organoen zeregina izango da: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean edo hori ordeztzen duen araudian horretarako izendatuta dauden organoena.

61. Atala - Zigorren preskripzioa

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak hiru urtera preskribatuko dira, arau-hauste larriengatikoak bi urtera, eta arau-hauste arinengatikoak urtebetera. Preskribatzeko epea zigorra ezartzeko erabili den administrazio-bideko ebazpena irmo egiten den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen.

62. artikulua.- Ondasunak leheneratzeko betebeharra.

- 1.- Zigorrak ezartzeari utzi gabe, araua hausten dutenak behartuta daude eragindako kalteak konpontzera, hondatutako ondasunak oneratzeko eta lehengo egoerara ekartzeko.
- 2.- Araua hausten duenak aurreko artikuluzatian ezarritako eginbeharra betetzen ez duenean edo erabat betetzen ez duenean, behartzeko isunak ipini ahal izango zaizkio, eginbehar hori bete dezan.
- 3.- Aurreko artikuluzatian aipatutako isunak ezarri baino lehen, agindutakoa borondatez betetzeko eskatuko zaio araua hausten duenari. Epe bat finkatuko da horretarako; egoera aztertuta erabakiko da zenbat iraungo duen, eta borondatez betetzeko behar adinakoa izango da.
- 4.- Behartzeko isunak apartekoak izango dira, eta bateragarriak egin den arau-hausteagatik zigor gisa ipini diren edo ipin daitezkeen isunekin.
- 5.- Kaltea elementuan bertan edo puntu geografikoan bertan konpondu ezin denean, baliokidea den konponketa bat agindu dezake organo eskudunak.
- 6.- Administrazioak ezarritako zigorretatik lortzen diren ekonomia-funtsak ingurumena hobetzeko neurrietara bideratu behar dira osorik.

63. artikulua.- Zigor-araubideko arauak.

Kapitulu honetan xedatu ez direnetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legean jasotako arauak aplikatuko dira.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Jaurlaritzari dagokio diru-zigorren zenbatekoa eguneratzea, urteko kontsumo-prezioen indizearen arabera.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Ahalmena ematen zaio Jaurlaritzari, lege honetako eranskinak aldatzeko eta III. eranskinean sartu gabeko substantzia kutsatzaileentzat Ebaluazioko Balio Adierazle berriak onartzeko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lege honetan zehar beste arau batzuetara bidaltzen denean, horietara edo, hala dagokionean, horien ordezkotara bidaltzen dela ulertzen da.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lurzoruaren kalitatearen adierazpentzat joko dira 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean sartu aurretik lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen inguruan autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak emandako ebazpenak eta ziurtagiriak.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lege hau indarrean sartu aurretik lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura bezala hasitako kasuak lege honetan ezarritakoaren arabera bideratu ahal izango dira, baldin eta lege honen arabera lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura gisa bideratu beharrekoak badira edo prozedura horietatik salbuetsi badaitezke, betiere prozedura hastea eskatu duenaren eskariz, eta hasitako prozeduraren behin betiko ebazpena eman ez bada.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Araubidea eguneratzen den bitartean, lurzorua ikertu eta oneratzeko entitateak baimentzeko eta lurzoruaren kalitatearen ikerketen edukia eta zehaztasun-maila finkatzeko, xedapen honi jarraituko zaio: 2006ko urriaren 10eko 199/2006 Dekretua, zeinak lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatuzko sistema ezartzen baitu eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten baititu.

Aurreko xedapenean aipatzen den entitateak baimentzeko araubidea eguneratzen den bitartean, 2006ko urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren 3. artikuluko 1.a letran xedatutako ekintzak egiteko baimenduta dauden entitateek hondeaketa-planak eta egoeraren txostenak egin ahal izango dituzte, arau honetan xedatutako lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozeduretan.

Orobat, aipatutako hondeaketa-planak gainbegiratzeko lanak egin ahal izango dituzte 2006ko urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren 3. artikuluko 1.c letran xedatutako ekintzak egiteko baimenduta dauden entitateek.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruaren inbentarioa, eguneratzen den bitartean, 2008ko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartutakoa da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea eta lege honetan ezarritakoaren aurka doan xedapen oro.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA: LURZORUAREN KUTSADURA SAIHESTU ETA GARBITZEAREN ARLOKO TASA

II. kapitulu berri bat gehitu da 2011ko irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginean, IX. tituluaren IX. artikuluan. Hauxe da:

II. KAPITULUA. LURZORUAREN KUTSADURA SAIHESTU ETA GARBITZEAREN ARLOKO TASA

191 quater artikulua. - Zergapeko egitatea.

Lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloan ingurumen-organoak zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituen ezarriko da tasa hori. Honako kasu hauetan ezarriko da zerga:

1. Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduran, ingurumen-organoak honako erabaki hauek ematean:
 - a) Lurzoruaren kalitatearen ikerketetako balioztatze-txostenak, aurkeztutako ikerketa-txostenak nahikoa ez izateagatik.
 - b) Hondeaketa baimentzen duten ebazpenak.
 - c) Lurzoruaren kalitatearen adierazpenak.
 - d) Lurzorua oneratzeko plana onartzeko ebazpenak.
 - e) Lurzorua oneratu dela ziurtatzen duten ebazpenak.
2. Lurzoruaren erabilera-gaitasuna adierazten duen ebazpena ematean



3. Salbuespenaren ebazpena ematea
4. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko entitate izateko baimena ematean.
5. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko entitate izateko emandako baimenak aldatzeko eskaerak bideratzean, baimenaren irismena handitzeagatik eta/edo proiektuaren buruak eta arrisku-aztertzaileak gehitzeagatik, horien gaitasuna alde aurretik balioztatu ez bada.
6. Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan egindako kontsulten inguruko erabakia ematean.

191 quinquies artikulua. - Subjektu pasiboa.

Zerga ezartzea dagokion kasuko zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira tasa horren subjektu pasiboak.

191 sexies artikulua. - Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitatea den zerbitzua eman edo jarduera egiten denean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, dagokion ekintza eskatzen den unean bertan ordaintzea eskatu ahal izango da.

191 septies artikulua. - Kuota.

1. Tasa horren kuota honako tarifaren arabera eskatuko da (euroak):

a) Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduran:	
- Lurzoruaren kalitatearen ikerketetako balioztatze-txostenak ematea	150,00
- Hondeaketa baimentzen duten ebazpenak ematea	200,00
- Lurzoruaren kalitatearen adierazpenak ematea	200,00
Lurzorua oneratzeko plana onartzeko ebazpena ematea	200,00
- Lurzorua oneratu dela ziurtatzen duten ebazpenak ematea	150,00
b) Lurzoruaren erabilera-gaitasuna adierazten duen ebazpena ematea	150,00
c) Salbuespenaren ebazpena ematea	100,00
d) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko entitate izateko baimena ematea	400,00
e) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta oneratzeko entitate izateko baimena aldatzea	100,00
f) Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan egindako kontsulta	50,00
2. Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduretan, ordaindu beharreko tasaren kuota zenbatekoa den prozedura horretan ematen diren erabakien kopuruaren arabera kalkulatu da.

191 octies artikulua. - Hobariak

1. Aurreko artikuluan oinarrituta kalkulatuak kuota, hobari hauek aplikatuko zaizkie, eta metatu egin ahal izango dira:
 - a) a) kuotaren % 10, enpresa txiki eta ertainen kasuan, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioko definizioaren arabera
 - b) b) kuotaren % 20, mikroenpresen kasuan, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioko definizioaren arabera
 - c) kuotaren % 50, subjektu pasiboek Europako EMAS Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen badute.



2. Aurreko artikuluzatian ezarritako hobariren bat aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek baldintza horiek betetzen dituztela dioen erantzukizunezko adierazpen bat aurkeztu beharko dute prozedura hasteko eskaerarekin batera.

191. artikulua.- Tasa likidatzea.

1. Dagokion ekintza eskatzen duten unean zehaztu eta ordaindu beharko dute zor duten zerga subjektu pasiboek, autolikidazioaren bitartez.
2. Hala ere, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduretan, ingurumenaren arloan eskumenak dituen organoak erabakiko du tasa zenbatekoa den, eta prozedura amaitzen duen ebazpena emandakoan likidatuko da tasa.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.- INDARREAN JARTZEA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERA ETA INSTALAZIOAK

1993ko
EJSNa - 1.
berrikuspena

Deskribapena

	(1)	
10.1	Antrazita eta harrikatza ateratzea eta aglomeratzea	
10.2	Lignito nabarra ateratzea eta aglomeratzea	
11.1	Petrolio gordina eta gas naturala ateratzea	
11.20	Petrolio- eta gas-ustiapenekin loturiko zerbitzuetako jarduerak, prospekzio-jarduerak izan ezik	
13.1	Burdina-mineralak ateratzea	
13.20	Burdinazkoak ez diren metalezko mineralak ateratzea, uraniozko eta toriozko mineralak izan ezik	
14.3	Ongarriak eta kimika-produktuak egiteko mineralak ateratzea	
14.5	Metalezkoak eta energiakoak ez diren bestelako mineralak ateratzea	
15.40	Koipeak eta olioak egitea (landareenak eta animalienak)	
15.61	Errotaritzako produktuak egitea	
17.3	Ehunei akabera ematea	
17.542	Ehun inpregnatuak, gogortuak edo materia plastikoz estaliak egitea	
18.3	Larruak prestatzea eta tindatzea; larruzko gaiak egitea	
19.10	Larrua prestatzea, ontzea eta akabera ematea	
20.10	Zura zerratzea eta marruskatzea; zura industrian prestatzea	
20.20	Txapak, taulak, kontratxapatuak, listoiak, aglomeratu-partikulak, zuntzak eta panel-aulak egitea	
21.1	Paper-orea, papera eta kartoia egitea	
21.24	Paper pintatuak egitea	
22.2	Arte grafikoak eta horiei loturiko zerbitzuetako jarduerak (2)	
23.10	Koke-fabrikak	
23.20	Petrolio fintzea	
24.1	Oinarrizko kimika-produktuak egitea	
24.20	Pestizidak eta nekazaritzako bestelako kimika-produktuak egitea	
24.30	Pinturak, bernizak eta antzeko estaldurak egitea; inprimategiko tintak eta mastikak	
24.40	Farmaziako produktuak egitea	
24.50	Xaboiak, detergenteak eta garbitzeko nahiz distira emateko bestelako gaiak egitea Lurrinak eta edertasunerako nahiz higienerako produktuak egitea	

24.60	Bestelako kimika-produktuak egitea
24.70	Zuntz artifizialak eta sintetikoak egitea
25.1	Kautxuzko produktuak egitea
26.1	Beira eta beirazko produktuak egitea
26.210	Zeramikazko etxerako gaiak eta apaingarriak egitea
26.240	Erabilera teknikorako zeramikazko bestelako gaiak egitea
26.250	Zeramikazko bestelako produktuak egitea (industriarako zeramika egitea)
26.260	Zeramikazko produktu erregogorrak egitea
26.3	Zeramikazko lauza beiraztatutak eta solairu-lauzak egitea
26.510	Zementua egitea (zementu artifiziala)
26.65	Zuntz-zementua egitea
26.8	Metalezkoak ez diren zenbait produktu mineral egitea
27.10	Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko oinarritzko produktuak egitea (IAEE)
27.211	Burdinazko hodiak egitea
27.22	Altzairuzko hodiak egitea
27.3	IAEEkoak ez diren burdina eta altzairua eraldatzeko eta ferroaleaziozko produktuak egiteko bestelako jarduerak
27.41	Metal preziatuak ekoiztea eta lehen aldiz eraldatzea
27.42	Aluminioa ekoiztea eta lehen aldiz eraldatzea
27.43	Beruna, zinka eta eztainua ekoiztea eta lehen aldiz eraldatzea
27.440	Kobrea ekoiztea eta lehen aldiz eraldatzea
27.450	Burdinazkoak ez diren bestelako metalak ekoiztea eta lehen aldiz eraldatzea
27.5	Metalak galdatzea
28.1	Eraikuntzarako metalezko osagaiak egitea
28.2	Metalezko tangak, andel handiak eta edukiontziak egitea Berokuntza zentralako erradiadoreak eta galdarak egitea
28.3	Lurrun-sorgailuak egitea
28.40	Metalak forjatzea, estanpatzea eta enbutitzea; hautsen metalurgia
28.5	Metalak tratatzea eta estaltzea Mekanika oroko rreko ingeniarietza, besteren kontura
28.6	Aiztoak, mahai-tresnak, lanabesak eta burdingintzako gaiak egitea
28.7	Metalezko zenbait produktu egitea, altzariak izan ezik
29.1	Mekanikako makinak, tresneria eta materiala egitea
29.2	Erabilera orokorreko mekanikako makinak, tresneria eta materiala egitea
29.3	Nekazaritzako makinak egitea
29.4	Makina-erremintak egitea
29.5	Erabilera zehatzetarako zenbait makina egitea
29.6	Arma eta munizioak egitea
29.71	Etxetresna elektrikoak egitea
30	Bulegorako makinak eta ekipamendu informatikoak egitea
31	Makina eta material elektrikoak egitea

- 32 Material elektronikoa egitea: irrati-, telebista- eta komunikazio-ekipamenduak eta -aparatuak egitea
- 33.1 Ekipamendu eta tresna mediko-kirurgikoak eta aparatu ortopedikoak egitea
- 33.2 Neurtzeko, egiaztatzeko, kontrolatzeko, nabigatzeko eta bestelako xedeetarako tresnak eta aparatuak egitea, industria-prozesuak kontrolatzeko tresneria izan ezik
- 33.3 Industria-prozesuak kontrolatzeko tresneria egitea
- 34 Ibilgailu motordunak, atoiak eta erdi-atoiak egitea
- 35 Garraioko bestelako materialak egitea
- 36.1 Altzariak egitea
- 36.5 Jokoak eta jostailuak egitea
- 36.6 Bestelako zenbait manufaktura-industria
- 37 Birziklatzea
- 40.1 Energia elektrikoa ekoiztea eta banatzea
- 40.2 Gasa ekoiztea; gasdun erregaiak hiri-hodien bitartez banatzea, gasbideen bitartez izan ezik
- 50.20 Ibilgailu motordunak mantentzea eta konpontzea
- 50.40 Motorrak eta motor-bizikletak eta horien ordeko piezak eta osagarriak saltzea, mantentzea eta konpontzea (3)
- 50.50 Automoziorako erregaiak txikizka saltzea
- 51.12 Erregaien, mineralen, metalen eta industriarako kimika-produktuen merkataritzako bitartekariak
- 51.51 Erregai solido, likido eta gasdunak eta antzeko produktuak handizka salerostea
- 51.52 Metalak eta metalezko mineralak handizka sale rostea
- 51.532 Pinturak eta bernizak handizka salerostea
- 51.551 Ongarriak eta nekazaritzarako kimika-produktuak handizka salerostea
- 51.553 Industriarako kimika-produktuak handizka salerostea
- 51.57 Txatarra eta hondakinezko produktuak handizka salerostea
- 52.486 Erregaiak txikizka salerostea (ibilgailu automobiletarakoak izan ezik)
- 60.10 Trenz garraiatzea
- 60.2 Lehorreko bestelako garraiobideak
- 60.3 Hodi bidez garraiatzea
- 63.122 Salgai arriskutsuak gordetzea eta biltegitratzea
- 63.124 Bestelakoak gordetzea eta biltegitratzea
- 63.211 Trenen terminalak eta geltokiak
- 63.22 Itsasoko garraioari lotutako bestelako jarduerak
- 63.23 Aireko garraioari lotutako bestelako jarduerak
- 74.811 Argazkiak errebelatzeko, inprimatzeko eta handitzeko laborategiak (2)
- 90 Saneamendu publikoko jarduerak (5)
- 92.621 Kirol-klubak eta -eskolak (4)
- 93.01 Ehunezko eta larruzko jantziak ikuztea, garbitzea eta tindatzea (2)



(1) 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala onartzen duen 2007ko apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua betez (2009ko EJSNa), Estatistikako Institutu Nazionalak 1993ko EJSNaren 1. berrikuspenaren eta 2009ko EJSNaren arteko baliokidetzakoadroak argitaratu ditu bere web orrian, arau horrek 2009ko EJSNa mantentzea bermatzeko esleitzen dizkion eskumenen arabera.

(2) Txikizka salerostea izan ezik.

(3) Saltzea izan ezik.

(4) Tiro-eremuetarako bakarrik.

(5) Hirugarrenei deskontaminatzeko lanak egiten zaizkien lursailetan izan ezik.

Aurrekoetz gain, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioak dira, orobat, betiere lurzorua ukituz egiten badira: alde batetik, 1995eko martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuan jasotako substantziaren bat edo batzuk urtean 10 tona baino kopuru handiagoan sortu, maneiatu edo metatzen dituzten jarduera edo instalazioak -errege-dekretu horren bidez onartzen da substantzia berrien jakinarazpenaren eta substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratzeko eta etiketatzearen gaineko erregelamendua-; eta, bestetik, norberak erabiltzeko erregia biltegiatzea, 1999ko urriaren 1eko 1523/1999 Errege Dekretuaren arabera, urteko batez besteko kontsumoa 300.000 litro baino gehiagokoa bada eta bildutako bolumena guztira 50.000 litrokoa edo handiagoa bada -errege-dekretu horren bidez, aldatu egiten dira honako hauek: petrolio-instalazioen erregelamendua, zeina 1994ko urriaren 20ko 2085/1994 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen; MI-IP03 instrukzio tekniko osagarria, zeina 1997ko irailaren 15eko 1427/1997 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, eta MI-IP04 instrukzio tekniko osagarria, zeina 1995eko abenduaren 28ko 2201/1995 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen-.



II. ERANSKINA

LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERA ETA INSTALAZIOEN SAILKAPENA

A) Kutsatzeko ahalmen txikia duten jarduerak: honako baldintza hauek guztiak eta bakoitza betetzen dituzten jarduerak.

- Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak eragiten ez dien jarduerak.
- Kutsadura eragin dezaketen fokuekin egiten diren jarduerak, fokuk estalpean daudenean eta lurzorua behar bezala babestuta dagoenean leku horretan egiten den jarduerarako.
- Substantzia arriskutsuak edo lurzorua edo lur azpiko ura kutsa dezaketen bestelako substantziak dituen lurpeko instalaziorik ez daukaten jarduerak.
- 9/2005 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluzatiko baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak (1).

B) Kutsatzeko ahalmen ertaina duten jarduerak: jarduera horiek egokitu egiten dira 9/2005 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluzatiko baldintzetara, eta bete egiten dituzte kutsatzeko ahalmen txikia duten jarduerari ezarritako gainerako baldintzak, edo, lur azpiko instalazioen inguruko baldintza bete ez arren, egiazta dezakete instalazio horiek osagarriak direla, horien mantentze-lanak zuzen egin direla industriako segurtasun-araudiaren arabera eta ez dela antzeman ekintza kutsatzailea izan daitekeen gorabeherarik.

C) Kutsatzeko ahalmen handia duten jarduerak: lurzorua kutsa dezaketen gainerako jarduera eta instalazioak

- (1) 1995eko martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuan jasotako substantziaren bat edo batzuk urtean 10 tona baino kopuru handiagoan sortzea, maneiatzea edo metatzea; errege-dekretu horren bidez onartzen da substantzia berrien jakinarazpenaren eta substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzearen gaineko erregelamendua. Eta norberak erabiltzeko erregaia biltegitratzea, 1999ko urriaren 1eko 1523/1999 Errege Dekretuaren arabera, urteko batez besteko kontsumoa 300.000 litro baino gehiagokoa bada eta bildutako bolumena guztira 50.000 litrokoa edo handiagoa bada; errege-dekretu horren bidez, aldatu egiten dira honako hauek: petrolio-instalazioen erregelamendua, zeina 1994ko urriaren 20ko 2085/1994 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen; MI-IP03 instrukzio tekniko osagarria, zeina 1997ko irailaren 15eko 1427/1997 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, eta MI-IP04 instrukzio tekniko osagarria, zeina 1995eko abenduaren 28ko 2201/1995 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.



III. ERANSKINA

A EBALUAZIOKO BALIO ADIERAZLEAK

Kutsatzaileak (Metalak)

A-EBA

Artsenikoa	23
Barioa	80 + 2,5 L
Kadmioa	0,8
Kobaltoa	6 + 0,5 L
Kobrea	10 + 0,5 L
Gutzizko kromoa	25 + L
Merkurioa	0,3
Molibdenoa	0,6 + 0,018 L
Nikela	12 + L
Beruna	16 + 0,7 L + 2,1 H
Zinka	50 + 2L

H: Gai organikotan duen edukia.

L: Buztin-edukia.

OHARRA: Kg-ko miligramotan ematen dira balioak (ppm).



**B EBALUAZIOKO BALIO ADIERAZLEAK
PERTSONEN OSASUNA BABESTEKO**

<u>Kutsatzaileak</u>	<u>Industria</u>	<u>Parke publikoa (1)</u>	<u>Hiria</u>	<u>Haurren jolas-eremua (2)</u>	<u>Beste erabilera batzuk</u>
<u>Metal astunak</u>					
Artsenikoa	200	30	30	30	30
Kadmioa	50	25	8	5	5
Kobrea	(3)	(3)	(3)	(3)	(3)
Kromoa (guztira)	550	400	200	90	200
Kromoa (VI)	15	10	8	8	8
Merkurioa	40	15	4	4	4
Molibdenoa	750	250	75	75	75
Nikela	800	500	150	110	110
Beruna	1000	450	150	120	120
Zinka	(3)	(3)	(3)	(3)	(3)
<u>Beste konposatu ez-organiko batzuk</u>					
Zianuroak	25	5	5	5	5
<u>Konposatu organiko hegazkorak</u>					
Bentzenoa	10	5	1	0,2	0,1
Etilbentzenoa	100	20	4	2	2
Toluenoa	200	40	8	4	3
Xilenoak	200	40	8	4	4
Fenola	25	25	25	2,5	2,5
<u>Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak</u>					
Antrazenoa	700	500	100	70	45
Bentzo(a)pirenoa	2	2	0,2	0,2	0,02
Fluorantenoa	80	60	50	8	8
Naftalenoa	10	10	8	3	1
Azenaftenoa	100		60		6
Kutsatzaileak	Industria	Parke publikoa (1)	Hiria	Haurren jolas-eremua (2)	Beste erabilera batzuk
Bentzo(a)antrazenoa	20		2		0,2
Fluorenoa	100		50		5
Pirenoa	100		60		6
Bentzo(b)fluorantenoa	20		2		0,2
Bentzo(k)fluorantenoa	100		20		2
Krisenoa	100		100		20
Dibentzo(a,h)antrazenoa	3		0,3		0,03
Indeno(1,2,3-cd)pirenoa	30		3		0,3
<u>Disolbatzaile klorodunak</u>					
1,1-Dikloroetanoa	100		70		7
1,1,2,2-Tetrakloroetanoa	3		0,3		0,03
1,1,2-Trikloroetanoa	10		1		0,1
1,2-Dikloroetanoa	5		0,5		0,05
1,2-Diklorobentzenoa	100		70		7
1,2-Dikloropropanoa	4		0,5		0,05
1,3-Dikloropropanoa	7		0,7		0,07



2-Klorofenola	100		10		1
2,4,5-Triklorofenola	100		100		10
2,4,6-Triklorofenola	90		9		0,9
2,4-Diklorofenola	10		1		0,1
1,2,4-Triklorobentzenoa	90		9		0,9
1,4-Diklorobentzenoa	40		4		0,4
Kloroformoa	5		3		0,7
Klorobentzenoa	35		10		1
Pentaklorofenola	1		0,1		0,01
Trikloroetilenoa	70		7		0,7
1,1-Dikloroetilenoa	1		0,1		0,01
Diklorometanoa	60		6		0,6
Tetrakloroetilenoa	10		1		0,1
Karbono tetrakloruroa	1		0,5		0,05
Hexaklorobentzenoa	1		0,1		0,01
Hexaklorobutadienoa	10		1		0,1
Hexakloroetanoa	9		0,9		0,09
<u>Pestizidak</u>					
Aldrina	1		0,1		0,01
Klordanoa	1		0,1		0,01
Dieldrina	1		0,1		0,01
Endrina	1		0,1		0,01
Alfa-HCHa	1	1	0,1	0,1	0,01
Beta-HCHa	1	0,1	0,1	0,01	0,01
Gamma-HCHa	1	0,1	0,1	0,1	0,01
p,p'-DDEa	60		6		0,6
p,p'-DDTa	20		2		0,2
p,p'-DDDa	70		7		0,7
Endosulfana	60		6		0,6
<u>Beste batzuk</u>					
Azetona	100		10		1
p-Kloroanilina	30		3		0,3
Estirenoa	100		100		20

Kutsatzaileak	Industria	Parke publikoa (1)	Hiria	Haurren jolas-eremua (2)	Beste erabilera batzuk
Binil kloruroa	1		0,1		0,01
Heptakloro epoxidoa	1		0,1		0,01
Kresola	100		40		4
PKBa	0,8	0,8	0,08	0,08	0,01

(1) "Parke publiko" erabilerarako B Ebaluazioko Balio Adierazleak kalkulatzeko, honako esposizio-bide esanguratsuak hartu dira kontuan: lurzoruko partikulak arnastea, kanpoan lurzoruko lurrunak arnastea, lurzorua irenstea eta azalarekin lurzorua ukitzea.

(2) "Haurren jolas-eremua" erabilerarako B Ebaluazioko Balio Adierazleak kalkulatzeko, honako esposizio-bide esanguratsuak hartu dira kontuan: lurzoruko partikulak arnastea, kanpoan lurzoruko lurrunak arnastea, lurzorua irenstea eta azalarekin lurzorua ukitzea.

(3) Gehienezko kontzentrazio onargarri eratorria g/kg hamarrekotan ematen da.

OHARRA: Kg-ko miligramotan ematen dira balioak (ppm).



**B EBALUAZIOKO BALIO ADIERAZLEAK
EKOSISTEMAK BABESTEKO**

<u>Kutsatzaileak</u>	<u>Lurzoruko organismoak</u>	<u>Uretako organismoak</u>	<u>Lehorreko ornodunak</u>
<u>Konposatu aromatikoak</u>			
Bentzenoa	1	0,20	0,11
Etilbentzenoa		0,08	4,6
Toluenoa	0,3	0,24	13,5
Xilenoa		0,07	
<u>Fenolak (guztira)</u>			
Fenola	0,27	0,03	23,7
<u>Konposatu polizikliko aromatikoak</u>			
Azenaftenoa		0,02	4,85
Antrazenoa		0,01*	22,0
Bentzo(a)antrazenoa	3,8	0,01	
Bentzo(a)pirenoa	0,15	0,01*	
Bentzo(ghi)perilenoa			
Bentzo(k)fluorantenoa			
Krisenoa			
Fenantrenoa			
Fluorantenoa	1	0,03	1,96
Fluorenoa	0,22	0,02	2,84
Indeno(1,2,3-cd)pirenoa			
Naftalenoa	0,1	0,05	0,06
Pirenoa		0,01*	1,20
<u>Hidrokarburo klorodunak</u>			
Kloroformoa		0,01	0,01
Karbono tetrakloruroa		0,12	
1,1-Dikloroetanoa		0,06	4,18
1,2-Dikloroetanoa		0,16	0,24
1,1,2-Trikloroetanoa		0,16	0,30
1,1,2,2-		0,02	0,04
Tetrakloroetanoa			
Hexakloroetanoa		0,03	0,03

<u>Kutsatzaileak</u>	<u>Lurzoruko organismoak</u>	<u>Uretako organismoak</u>	<u>Lehorreko ornodunak</u>
Trikloroetilenoa		0,21	0,45
Tetrakloroetilenoa	0,01*	0,06	0,15
1,2-Dikloropropanoa	4,24	0,07	0,43
1,3-Dikloropropanoa		0,01*	0,58
Hexaklorobutadienoa		0,01*	
Klorobentzenoa	1	0,03	7,66
1,2-Diklorobentzenoa		0,11	3,15
1,4-Diklorobentzenoa	0,10	0,16	0,53
1,2,4-Triklorobentzenoa	0,05	0,79	0,94
Hexaklorobentzenoa	5,7	0,01	0,01*
2-Klorofenola	0,04	0,01*	0,12
2,4-Diklorofenola	0,2	0,06	0,02
2,4,5-Triklorofenola	0,05	0,09	3,3
2,4,6-Triklorofenola	0,4	0,012	0,03
Pentaklorofenolak	0,02	0,01*	0,01*
(guztira)			
<u>Pestizidak</u>			
Aldrina	0,01*	0,01	0,01*
Karbofuranoa			
Klordanoa	0,04	0,01*	0,01*
Dieldrina	0,13	0,01*	0,01*
Endosulfana	0,01	0,01*	0,04
Endrina		0,01*	0,01*
a-HCHa		0,25	0,05
b-HCHa		0,38	0,01*
c-HCHa	0,01*	0,01*	0,23
p,p'-DDEa	0,14	0,01*	0,01*
p,p'-DDTa		0,01	0,01*
<u>Beste konposatu klorodun batzuk</u>			
PKBak			
Dioxinak			
<u>Beste konposatu organiko batzuk</u>			
Olio minerala			
Azetona		0,54	6,71
p-Kloroanilina	0,14	0,01*	0,09
1,4-Dioxanoa	1,45	13,9	
Estirenoa	0,68	0,25	100(**)
Nonilfenola	0,34	0,031	0,78
Pentabromo difenil eterra	0,32	5,18	0,01*
Oktabromo difenil eterra		0,51	0,24
Dekabromofenil eterra		2,66	59,7
<u>Konposatu ez-organikoak</u>			
Fluoruroak	11	0,29	3,7

* Beheko detekzio-muga.

** Murrizteko irizpidea aplikatuta.

OHARRA: Kg-ko miligramotan ematen dira balioak (ppm).

EAEko hirigintza-plangintza orokorreko lurzoru-erabileren sailkapenaren eta pertsonen osasuna babesteko aplikatu behar diren B-EBA balioen arteko lotura

<u>Lurzoruaren erabilerak</u>		<u>Aplikatzeko EBak</u>	
Bizitokia	Familia bakarreko etxebizitza	Beste erabilera batzuk	
	Etxebizitza itsatsia Etxebizitza kolektiboa	Beste erabilera batzuk Hiria	
Ekoizpena	Industria	Etxebizitzarekin bateragarria	Hiria
		Etxebizitzarekin bateraezina	Industria
	Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	Nekazaritzako ustiapena	Beste erabilera batzuk
		Basogintzako ustiapena Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapena, produktuak eraldatu gabe	Beste erabilera batzuk Beste erabilera batzuk
Tertziarioa	Erauzteko jarduerak	(2)	
	Bulegoak Dendak	Industria Industria	
Komunitate-ekipamendua	Kirola	Kanpoan	(2)
		Beste batzuk	(2)
	Irakaskuntza	Eskolaurrea, lehen hezkuntza	Hiria (3)
		Beste batzuk	Hiria (3)
	Osasuna Laguntza	Helduentzat Haurrentzat	Hiria Hiria Hiria
Kultura, ikuskizunak, erlijioa, unibertsitatea, orokorra, administrazioa		Industria/merkataritza	
Espazio libreak Komunikazioak Azpiegiturak		Parke publikoa (1) (3) (2) (2)	

(1) Ekosistemak babesteko EBA balioen aplikazioa ere kontsultatu.

(2) Kasuz kasu ebaluatu behar da.

(3) Haurrek jolas egiteko berariaz jarritako espazioetan "haurren jolas-eremuari" dagokion balioa aplikatuko da.